

Josu Waliño
Mikroipuin-labea



MIKROIPUIN-LABEA

Josu Waliño

© cc-by-nc-sa Josu Waliño 2009 – 2012

Bilduma honetako testuak lizentzia honekin daude babestuak:
Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe.
Informazio zehatzagoa hemen:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/deed.eu>

TENTAZIOAK (HITZAURREA EDO...)

Tentazioz beteriko liburua duzu hau, irakurle.

Koaderno batean jasotako ipuin-bilduma hutsean uztea izan zen nire lehen tentazioa. Hasiera batean asmo horrekin jaio baitziren ipuin hauek, koadernoko orrietan idatziak izateko. Baina tentazioa gaindituta, Internetera egin zuten jauzi, blog modura, lehenik, sare sozialetan, ondoren. Bigarren tentazioa iritsi zen orduan, zibertentazioa esango nuke: zergatik paperean argitaratu dagoeneko mundu osoari zabaldu zaiona? Ez ote da atzerapausoa?

Interneten argitaratzeak berezko balioa duela ikusi dut azken urteotan: ipuinak eguneroko kezkekin, uneko gertakariekin, bizitzan jazotakoekin lotu eta bizi ahala argitaratzen joan naiz. Hori islatu dut mikroipuin bakoitzean urte hauetan. Nola ekarri hori liburrura? Testuinguru eta garaiz kanpo nola argitaratu?

Ipuin batzuk bildumatik kendu eta beste batzuekin ordezkatzeko tentazioa izan nuen orduan, Interneterako propio landutako hainbat ipuinek liburuan nortasuna galduko zutelakoan. Horrek zentzurik ez zuenez, ipuinak eraldatzeko tentazioa gainditu behar izan nuen, eta hori ere baztertuta, liburua oin-oharrez janztea bururatu zitzaidan, testuinguruak azaltzeko. Neure buruarekin asko eztabaidatu ondoren, tentazio guztiak gainditu eta errazena egitea erabaki dut: ipuin bakoitza dagokion testuinguruan kokatzeko lana irakurlearen esku uztea.

Tentazioz beteriko liburua duzu esku artean, irakurle. Goza ezazu bere baitan, berezko izaera onar iezaiozu, eta mikroipuin-labetik ateratzen diren ipuinak letra-gosez irentsi bere jatorrizko izaeran. Ez duzu hemen transgenikorik topatuko, guztia duzu benetakoa, goxotasun osoz banan-bana sukaldatutakoa.

Zabaldu liburua, eta gozatu. Tentazioak ez baitira bekatu.

Josu Waliño

Zumaia, 2009ko apirila - 2012ko martxoa

ERRONKA

Erronka jo diot neure buruari:

—Ezetz ipuin laburrez osatutako bloga abiatu!

Pentsakor gelditu naiz, neure buruarekin haserre: “Posible al da horrelako erronka jotzea?”.

Ez dakit zer erantzun. Ez dakit erronkari aurre egiteko gai naizen, ipuin laburrak astero, hamabostero asmatu eta idatzi beharra: formatu txikian, Interneten, pantailan irakurtzeko modukoak...

Egin dezaket? Auskalo! Baina erronkak maite ditut.

—Baietz egin! —erantzun diot oldarkor neure buruari.

Eta mikroipuin-labea piztu dut.

URDINA BELTZ

Bere kolorea beltza zen.

Beltzak ziren bere zapatak, kamisetak, galtzak... beltzak zituen txaketak, baita barruko arropak ere. Beltza zuen gustuko eta beltz kolorekoa zen janzten zuen guztia.

Zergatik jantziko zen orain urdinez?

Lagunek adarra jotzen zioten:

—Ez haiz santelotan ere beltzez jantzita aterako! —egiten zioten barre, eta ez zien erantzuten bazekielako arrazoi zutela.

Amak mahoizko arropa berriak (urdin-urdinak) erosi eta ohe ganean utzi zizkion festa-bezperan, jantziko zituen esperantzan. Berak, arratsalde osoa eman zuen gelan, arropa haiei begira, zer egin ez zekiela. Buruari mila buelta eman zizkion, santelotan beltzez jantzita nola irten pentsatuz, burutazio bat izan zuen arte. Arrapaladan atera zen kalera eta, bitan pentsatu gabe, bere ideia abian jarri zuen.

Festak urdinetik beltzera pasa zituen. Ingurukoen harridurarako dena primeran joan zitzaion eta beltzez atera zen kalera. Danborradak izorratu zuen arte.

Gauerdiko danbor hotsek santelmo martxa abiatu orduko hasi zen euria eta, horrekin batera, txinotako tindagaiz belztutako alkandora urdintzen hasi zitzaion. Kofradiako lurra tantokin beltzez tindatzen hasi zenean ezinaren aurrean etsi zuen.

Bere kolorea urdin bilakatu zen.

AHOA ZABALDU

—Ahoa zabaldu! —agindu dit dentistak gupidarik gabe. Begirada maltzurra du, maskararen babespetik etzanda duen biktimari zuzentzen dion begirada lizuna. Badakit maskararen azpian irribarretsu dagoela, gozatzeko prest da goenaren irribarre zitalaz.

“Santelmo ondorena da”, pentsatu dut ikaratuta, “erruki pixka bat, mesedez!”

—Ahoa zabaldu! —errepikatu du berak inolako gupida erakutsi gabe eta, oraingoan, kasu egin diot.

Gerturatzen ikusi dut, esku batean ispilutxoa eta bestean punta zorrotzeko tramankulu beldurgarria ahorantz gerturatuz. Poliki hurbildu zait, begi txikiak irribarretsu, biktima sufriarazteko prest.

Ispilua ahoan sartzeko unean bat-batean gelditu da. Kolpera egin du atzera, zaplazteko bat jaso balu bezala begi txikiak zabal-zabal eginda. Pixkanaka azaleko kolorea aldatzen hasi zaiola ikusi dut, arrosa eder batetik hori tristera pasa, eta berde gaixo batean amaituz.

Zerraldo erori da lurrera, zorabiatuta. Erizaina asaldatuta joan zaio berehala, baina ni ez naiz tokitik mugitu. Oraingoan nik egin dut irribarre, hamaiketakoan gozatutako olagarro-zopa gogoan.

—Santelmo ondorena da —gogorarazi diot irribarre bihurri batekin lurrean dagoen dentistari.

Eta ahoa itxi dut.

MAMUA

Begiak zabaldu zituenean mamuak han jarraitzen zuen.

Geldirik.

Gelaren iluntasuna erabatekoa izan arren, garbi ikus zezakeen. Bere aurrean zegoen, geldi. Argi leun batek inguratzen zuen, fosforeszentzia baten modukoa. Ingurua betetzen zuen argi leuna.

Mamua zutik zegoen, airean flotatuz bezala, begira.

Berari begira.

Ohe barrutik, tapakien babesean, gorputzeko izua gainditu eta begirada itzultzera ausartu zen.

Bera zen, ez zuen inolako zalantzarik. Hil aurreko aurpegi bera zuen, baina begiak... zulo ilunak baino ez ziren lehen begi argiak zituen tokia.

“Zer nahi duzu?”, nahi zion galdetu, baina ez zen ausartzen, erantzuna ezagutzen zuelako. Eta ez zuen gustuko.

Zer egin zezakeen orduan? Ihes? Ezkutatu? Begiak berriz ixtea erabaki zuen. Bere ikara tapakien azpian gordetzea, ezjakinarena egitea, mamua bere kasa desagertuko zen esperantzan.

Oheko arropen babesean begiak itxi zituen.

Berehala sumatu zuen hoztasun bat inguruan, ohea setiatzen zuen lanbro baten modukoa.

Umeltasunak biltzen zuen, gordetzen zuen, itotzen zuen.

Begiak are indar gehiagoz itxi zituen, desesperatuta. Eta etsipen ilunean loak hartu zuen.

Ez zen berriz esnatu.

DORTOKA ETA ESKORPIOIA

Patxi dortoka triste zegoen ibai ertzean.

—Zer gertatzen zaizu, Patxi? —galdetu zion handik zebilen Antonio eskorpioiak.

—Ibaiaren bestaldera pasa nahian nabil, baina nire lehen aldia denez, laguntza behar dut — azaldu zion dortokak mesfidati—. Hemengo inork ez dit lagundu nahi, ordea —jarraitu zuen inguruan zebiltzan beste animaliei begira.

—Lasai, Patxi —erantzun zion eskorpioiak adeitsu—. Nik lagunduko dizut! Zure bizkar gainean joango naiz norabidea adierazten.

—Zuk? —beldurtu zen dortoka—. Zuk ziztatu egingo nauzu eta pozoin duta hilko naiz.

—Bai zera! —lasaitu zuen eskorpioiak barrez—. Ez al zara ohartzen ziztatuz gero biok itoko garela?

Logika horri jarraituz, eta inguruan beste inor laguntzeko prest ez zegoela ikusita, eskorpioiaren eskaintza onartu zuen Patxik. Ibaiaren beste aldera pasatzea bere betiko nahia zen eta arriskuak merezi zuela iritzi zion.

—Goazen, ba! —erantzun zion lagun berriari, eta ibaia zeharkatzen hasi ziren. Patxi dortokak igeri egiten zuen eta bizkarretik Antoniok bidea adierazten zion.

Ibaiaren erdian zeudela, ordea, ziztada bat nabaritu zuen dortokak lepo gainean.

—Zergatik egin duzu hori? —galdetu zion eskorpioiari ikaratuta pozoiaren eragina igartzean—. Orain biok itoko gara!

—Ezin izan diot eutsi —onartu zion eskorpioiak bizkar gainetik—. Nire izaeraren muinean dago.

ZAPOREA

Sukaldariak erronka jo zion munduari:

—Niretzat berria den zapore bat ekartzen didanak egunero izango du nire jatetxean doako jatordua —bota zuen oldarkor munduko telebista guztien aurrean.

Berehala sortu ziren jende-ilarak jatetxe ezagunaren aurrean, jakina baitzen bertan jan ahal izateko mundu guztiko agintari, zinema-izar zein erregeek hilabeteak eta urteak itxaron behar izaten zituztela. Saria ez zen, beraz, nolana hiko!

Mundu guztitik etorritako jendea azaldu zen sukaldaria harrutuko zuten zapore berriak erakusteko asmoz. Oihanik ezkutuenetan eta mendi-lerro garaienetan bildutako osagai, jaki zein espeziak ekartzen zituzten, baina guztiak bidaltzen zituen bueltan sukaldariak, denak baitzituen ezagun:

—Hau Tiber ibaiko alga da —esaten zien batzuei beraien jakia dastatu orduko, edo—. Al-Mahuni Sha handiak zerbitzatu zidan behin zuk ekarritako espezia —esaten zien besteei.

Ez zegoen sukaldariak ezagutzen ez zuen zaporerik eta, ondorioz, hilabeteak aurrera joan ahala jende-ilarak desagertzen joan ziren jatetxe aurretik.

Egun batean, itxura ziztrineko agure bat inguratu zitzaion sukaldariari eskutan lapiko zahar bat zeramala.

—Ezagutzen zaitut —esan zion sukaldariak agurea ikusi orduko—. Zu kale bazterrean diru-eske egoten zara. Eskean al zatoz?

—Zuk inoiz probatu ez duzun zopa bat ekarri dizut —erantzun zion agureak sukaldariaren harridurarako.

Sukaldariak barre egin zion agureari, baina bere zilarrezko koilara sartu zuen lapiko zaharrean. Agurearen zopa dastatu zuenean, ordea, aho zabal gelditu zen, begiak malkoz beteta.

—Hau da! —oihukatu zuen pozik—. Hau da behar nuen zapore berria!

Agureak irribarre egin zuen, jakin baitzekien aurrerantzean bero jango zuela gutxienez egunean behin.

—Nondik atera duzu horrelako jaki harrigarria? —galdetu zion sukaldariak besarkada artean.

—Egunero afaltzen dudan zopa prestatu dizut —erantzun zion eskaleak lasai asko—. Zure sukaldetik zaborretara botatzen dituzuen hondakinekin prestatu ohi dudan zopa.

GREBA

Irratian izan zuen grebaren berri:

“Maiatzak 21, langile guztiak deitzen ditugu grebara!”, oihukatzen zuen sindikalista batek irratiko bozgorailutik. “Bizi dugun prekarietate laboralaren aurka, langileon sufrimenduaren aurka, esplotatzaileen aurka, maiatzaren 21ean denok grebara!”.

Bihotza piztu zitzaion hitz horiek entzunda. Bere egunerokoa aldarri sutsu horretan islatuta ikusi zuen, eta maiatzaren 21ean berak ere greba egitea erabaki zuen.

Eguna iritsi zenean goiz hasi zuen bere borroka. Langileen eskubideak aldarrikatzen zituzten kartelez eta paskinez josi zuen lantokia. Berehala iritsi zitzaizkion, ordea, esplotatzaileen lehen kexak:

—Jo, ama! —entzun zuen goizean goiz—. Non da gosaria?

—Gosaria, bazkaria, arropak, gelak, garbiketak... —erantzun zuen harro—. Gaur zuek moldatu beharko duzue!

Eta bere zapaltzaileak sukaldean zur eta lur utzita, korridorera joan zen eguneko lehen manifa abiatzera.

AFARIA (ZAPOREA II)

Agurea jatetxera sartu da.

Betiko arropak daramatza soinean, ez baitu besterik. Kale bazterreko iturrian aurpegia eta eskuak ondo garbitu ditu, eta bere orrazi zaharraz astindu ditu gelditzen zaizkion ile ximelak. Patrikan gordetzen duen ispilu hautsian bere buruari oniritzia emanda, karrotxoa hartu eta jatetxera abiatu da, afaltzera.

Sukaldariak egin dio harrera, pertsonalki:

—Ongi etorri! —esan dio irribarretsu inguratzen duten telebista-kamera eta argazkilarien flashen artean—. Jatetxeko mahairik onena gorde dizugu.

Pozik jarraitu dio agureak mahairaino, egingo duen afari ederra gogoan. Zeta urdinez jantzita dago mahaia, zilarrezkoak dira mahai-tresnak eta Bohemiakoa kristaleria. Ingurura begiratuta, petrolio-gizona dirudien arabiar bat ikusi du ondoko mahaian, eta gaztetan ikusten zituen bakeroen pelikuletako protagonista beste aldean.

Txiki sentitu da inguru horretan baina... “ze demonio!” pentsatu du. Berak irabazi zion erronka sukaldariari, eta berari dagokio aurrerantzean bertan afaltzea.

Maitrea inguratu zaio eta esaldi luzez beteriko karta jarri dio aurrean.

Inoiz entzun ez zituen jakiak ikusi ditu bertan: “Kabiarras ondutako otarraina onddo-krema konfitatuan” edota “Thailandiako ahatea estragoi-mermeladan gozatua Sri Lankako ostrez lagunduta”. Goitik behera irakurri du karta, han agertzen diren jakiekin liluratuta.

Maitrea berriz inguratu zaionerako egina du bere hautua.

—Erabaki al du jaunak zer afalduko duen? —galdetu dio maitreak koadernotxoa ateraz, eta une horretan jatetxean dauden telebista-kamera eta mikrofono guztiak inguratu zaizkio albistea jasotzera.

—Bai —erantzun du agureak karta itxiz—. Nire betiko zopa hartuko dut.

EURIA MAITE ZUEN GIZONA

Euria maite zuen gizonak ezin zuen leihotik kanpora begiratu.

Gorputza bihurritu egiten zitzaion.

Udazken, negu eta udaberria bikainak izan ziren beretzat: ximelak, euritsuak, hezeak, ilunak... zoragarriak! Baina bat-batean, dena amaitu zen. Leihoa zabaldu eta eguzkiak betetzen zuen gela.

Euria maite zuen gizonak ezin zuen eguzkia ikusi.

Bihotza bihurritu egiten zitzaion.

Eta berekin etxean bizi ziren lagunez errukitzen zen. Etxea betetzen zuten barraskiloen bihotza, berea bezain triste sentitzen zuen, eta euria noiz itzuliko zen amesten zuen.

Euria maite zuen gizonak ezin zuen zeru urdina ikusi.

Barrenak bihurritzen zitzaizkion.

Horrelako larrialdi unetarako prestatuta zituen neurriak jarri zituen martxan: sukaldean gordetzen zuen mangera balkoira eraman eta han, ureztatze sistemara lotu zuen. Martxan jarri orduko etxean sartu zen, eguzkitik ihesi, eta leihotik kanpora begiratu zuen: mangerak zabaltzen zuen urak euriaren edertasuna irudikatzen zuen leiho aurrean.

Euria maite zuen gizonak leihotik kanpora begiratu eta irribarre egin zuen.

APAIZA ETA HARAKINA

Ura aurpegira bota diotenean esnatu da.

Kolpera.

Apaizak ingurura begiratu du, zorabiatuta. Soto ilun batean dago, aulki zahar bati lotuta eta ahoa estalita dauka. Ezin da mugitu, ezta hitzik egin ere. Eserita dagoen tokitik ez du askorik ikusten. Sotoaren iluntasuna erabatekoa da, bere aurrean dagoen argi txiki bat izan ezik. Apaiza dar-dar batean hasi da, beldurtuta.

—Esnatu zara halako batean! —esan dio ahots zakar batek, eta pixkat lehenago ezagutu duen harakina bere ikus-eremuan sartu da—. Ez zara nitaz oroitzen? —galdetu dio apaizari eta honek harriduraz begiratu du, aho estaliarekin erantzun ezinik.

—Gaur esan didate apaiz berria genuela auzoan —jarraitu du harakinak, aurrean eserita duen apaiza mespretxuz begiratu—, eta nik apaizak gorroto ditudala erantzun dut, apaizek zuzendutako umezurtz-etxe batean hazi nintzen-eta. Hara non sartu den handik pixkatera apaiz berria nire harategian, bere artaldea ezagutzera. Nire eskola zaharreko zuzendaria —eta harakinak barre egin du hitz horiek gogoan.

Apaizak kolpera ikusi du argia. Jon txikia da aurrean duen gizon mardula, bere Jon txikia. Begiak zabaldu ditu, ikaratuta!

—Ah! Oroitzen zara orduan! —poztu da harakina apaizaren keinua ikusita—. Zurekin garai zaharrak gogora ekarri nahi ditut nik orain. Ez izan beldurrik, esaten zenigun, kendu arropak —azaldu dio soinean dituen arropak erazten dituen bitartean—. Ez zara oroitzen?

Apaiza, ikaratuta dago, ordea. Aulki hartan lotuta aurrean biluzik agertzen zaion gizonari begira, izututa.

—Zure sotana altxatzeko esaten zenigun. Ez zara oroitzen?

Eta harakinak, biluzik, apaizaren sotana altxa eta azpiko arropak kendu dizkio, haren haragi ximelak agerian utziz.

—Zakila gozo hartzeko esaten zenigun. Ez zara oroitzen?

Eta harakinak, apaizaren zakil tristea bere esku lakarrez hartu du, apaizaren ikararako.

—Ez dizu minik egingo, esaten zenigun. Ez zara oroitzen?

Eta harakinak haragia txikitzeko makina jarri du martxan.

PRINTZEA ETA PRINTZESA

Printzesa igelari begira gelditu zen.

—Ez nazazu hil! —erregutu zion igelak printzesak eskutan zuen makilaren beldur.

—Hizketan badakizu! —harritu zen printzesa.

—Bai —erantzun zion igelak—. Ez bainaiz igel arrunta! Printzea naiz, eta duela urte asko sorgin batek sorgindu eta igel bihurtu ninduen.

—A bai? —galdetu zuen printzesak hasperen batekin—. Ez da oso istorio originala, ez duzu uste?

—Benetan ari naiz! —asaldatu zen printzea, bere gorputz berdea astinduz—. Nire lehengo itxura berreskuratzeko printzesa baten muxua baino ez dut behar. Ondoren, biok elkarrekin ezkondu eta pozik biziko gara betirako —azaldu zion printzesari—. Lagunduko didazu?

Printzesa pentsakor gelditu zen, igelari begira, horrelako erabaki garrantzitsua sakon aztertzekoa baitzen.

—Ni ere ez nauzu printzesa arrunta —azaldu zion igelari erabakia hartu zuenean.

—Hori begi-bistakoa da —bota zion printzeak, bere igel begi handiak kliskatuz.

—Ez naiz printzesa arrunta ez ditudalako printze urdinak gogoko —jarraitu zuen printzesak makilaren kolpe batez igela akabatuz—, baina igelen hankak frijituta, bai.

URA

Marinela itsasontziaren brankatik begira zegoen, desesperatuta.

Metro gutxi batzuk baino ez ziren falta portura iristeko. Arrantza-ontziaren kareletik lehorreko giroa suma zezakeen, tabernak usaindu, itsasoan igarotako egun luzeetan amestutako lurra sentitu,... baina, ezin iritsi.

Patroia gerturatu zitzaion.

—Animo! —esan zion esku bat sorbalda gainean jarritz—. Ordu pare bat baino ez dituk falta itsasgora iristeko!

—Hain gertu eta hain urruti —erantzun zion marinela atsekabetuta.

—Nahi al duk trago bat? —galdetu zion patroiak eskutan zuen ur-botila eskainiz.

Marinelak haserre begiratu zion, adarra jotzen ari ote zitzaion zalantzan. Hainbeste egun itsasoan pasa ondoren ontziaren sotoak hegaluzez beteta itzuli ziren, baina ardo-kupelak hutsik.

—Ura balego, ardoa edango —bota zion marinela patroiar honen eskaintako ur-botila hartuz—. Baina urik ez dagoenez, ura edan behar.

Marinelak botilari trago luze bat eman zion, eta itsasgora iristean edango zuen ardoarekin amets egin zuen.

BELTZA GORRI

Joder! Eta orain sanpedroak!

Lagunak aspalditik zituen adar-joka, oraingoan nola moldatuko zen ikusteko.

—Zer? —galdetzen zioten barre artean—. Txinotara joango al haiz berriz tindagai bila?

Berak muzin egiten zien, baina ez zuen irtenbide errazik ikusten. Bere janzeraren beltza mantendu nahi zuen, ez zuen nortasuna galdu nahi, baina, aldi berean, sanpedrotan gorritz janzten ziren koadrilak. Festa batzuk urdin, besteak gorri. Hau komeria!

Buruari buelta ugari eman zizkion, halako batean, hondartzatik zetozen alemaniar batzuk ikusita irtenbidea bururatu zitzaion arte.

Koadrilen eguneko goiza itsasoan pasa zuen. Aitonaren txalupa hartuta joan zen, han eguzkiak gogorrago joko zuen esperantzan. Kamiseta kendu eta inolako kremarik eman gabe etzan zen eguzkia hartzera. Goiz osoan ez zen mugitu, gorputzeko azal guztia gorri-gorri eginda ikusi zuen arte.

Arratsaldean harro atera zen kalera, oraingoan lortu zuela konbentzituta. Galtza motxak baino ez zituen jantzi, azaleko gorritasunak gorputza bero mantentzen ziolako. Lagunak ohiko tabernan topatu zituen, kamiseta gorriak soinean zituztela. Azala gorri-gorri eginda sartzen ikusi zutenean zur eta lur gelditu zitzaizkion begira.

—Oraingoan ederra egin dek! —bota zion Aitorrek barrez eta, konfirmazio moduan bizkarreko eder bat eman zion.

Lagunaren atzamarrak bere azal gorrituan igarri bezain pronto jabetu zen bere ideiarenekin. Gorriak ikusi zituen.

GUPIDARIK GABE

Olagarroa azkar mugitu da, gupidarik gabe aurrean duen arraina eraso.

Erroekin inguratu du arrainaren gorputza, gupidarik gabe estutuz, haragia hautsiz, jaten hasteko prest. Arrain zatiak mokora sartzen hasi denean sentitu du eztenkada, buruaren atzealdean min zorrotza eta, gertatzen denaz jabetu aurretik uretatik ateratzen dutela nabaritu du.

Arrantzaleak kementsu sartu dio kakoa olagarroari, eta eskutan hartuta, behin eta berriz kolpatu du haitzaren kontra, inolako gupidarik gabe. Olagarroa gehiago mugitzen ez dela ikusi duenean berriz hartu du eskutan eta buruari buelta emanda tripak kendu dizkio, gupidarik gabe. Ez da ale handia, kilo erdi eskas izango du, egun hartan harrapatu dituen guztien antzera. Handiak ez badaude txikiak hartu behar!

Goizeko arrantza-saioa amaitutzat emanda, hondartzarantz abiatu da, lehortu eta arropak aldatzera. Han ikusi du zaindaria, berari begira, arropak utzi dituen tokian, zain.

—Badakizu inguru hau biotopo babestua dela —esan dio zaindaria olagarro txikiz betetako poltsa arakatuz—. 300-400 euro arteko isuna jarri behar dizut.

Arrantzaleari aurpegia aldatu zaio, eta aitzakia egoki baten faltan pena aurpegia jarrita erantzun dio guardari:

—Ez al duzu gupidarik?

iFAXION

Mutila *faxion* sentitzen zen.

Azken modan egotea zuen gogoko, puntako teknologia erabiltzea eta, bereziki, diseinu nabarmenekin bereiztea.

Autobus-geltokian zain, inguruan zituen lagunei erreparatu zien. Mutil gazte bat zuen ondoan, aulkian eserita mp3 arrunt batekin musika entzunez. Haren alboan agure bat zegoen, burua estaltzen zion txapelaren azpitik trafikoari begira.

—Traste horrekin baino, hobeto iPod batekin, motel! —egin zion mespretxu mutil gazteari. Baina honek ez zion kasurik egin ateraldiari eta musika entzuten jarraitu zuen.

—Nik hala zeukat —jarraitu zuen harro—. iTunes erabiliz musika ona antolatzen diat nire iBook-ean eta, ondoren, iPhonea erabiltzen diat musika entzuteko, ez horrelako traste bat.

Gazteak erantzuten ez ziola ikusita, barre egin zuen, hau lotsarazi zuelakoan. Orduan ohartu zen agurea begira zuela txapelaren azpitik.

—Zer, aitona? —galdetu zion oldartuta—. Zer da txapel puntan duzun kirten hori? Wifi-antena?

—Ez, motel! —erantzun zion aitona irribarre maltzur batekin—. Detektorea duk, ez al diok igarri?

—Ah, bai? —harridura itxuraz mutilak, agureak adarra jo nahi ziola ohartuta—. Eta zer detektatzen ditu, obrak? Perretxikoak?

—Ez —erantzun zion agureak irribarrea kendu gabe—. iNuxentiak. Oraintxe topatu dik bat eta horregatik ziok tente.

OPORRAK

Boligrafoak oporrak eskatu dizkit.

—Oporrak? —harritu naiz—. Zer egingo duzu baina, oporretan?

—Kostara joango naiz —erantzun dit boligrafoak lotsagabe—. Atsedena behar dut, hilabeteak daramatzat zure mikroipuinak idazten! Tinta lehortzen hasi zait hemen.

—Kostan bizi gara, ordea —gogoratu diot boligrafoari.

—Bai, baina hau udan frantsesez beteta dago —esan dit tinta astinduz—. Giroa aldatzeko gogoa daukat. Landetara joango naiz.

Barre egin diot nik.

—Landetara? Han frantsesak eta euskaldunak baino ez daude! Zer giro aldatuko duzu?

—Zuk oporrik ez didazu eman nahi! —oihukatu dit haserre tinta ziprztinduz—. Esplotatzailea! Konbenioz oporrak dagozkit, eta bueltatzen naizenean teklatura edo arkatzagatik aldatu banauzu, salaketa jarriko dizut!

Tinta borborka ikusi diodanean boligrafoaren estresaz ohartu naiz, eta arrazoi duela esan diot, oporrak behar dituela eta abuztu osoan ez dugula mikroipuin gehiago idatziko.

—Ados —esan dit baretuta—. Idatziko dizut postalen bat hondartzatik —eta hau esanda bakarrik utzi nau koaderno aurrean.

Blog bat boligrafoz idazteagatik merezita daukadala erabaki dut, eta labea stand-by egoeran jarri dut iraila arte.

NUNCA MAIS

21:00 PM – Koadrilakin afaria. Atuna parrillan eta sagardo piloa. Postrerako musa (ez moussea) eta kubarona.

02:30 AM – Musarekin zerbeza ugari joan dira. Amaituta denei agur, baina ezin: “Nola joango haiz ba? Azken zerbeza, tira!”. Ezin ezetz esan.

05:30 AM – Azken zerbezarena hamar aldiz egin ondoren etxera. Dutxa eta ohea. Globoa jaistera. Pufff!

08:00 AM – Aitzol ohe ondoan zalapartaka: “Aita jaikiiii!!!!!!”. Lamadrekelopario! Lo itxurak egingo ditut, ea aspertzen den.

08:01 AM – Aitzol ohe ondoan txirula jotzen. Ostrukarena egiten jarraitu, ea alde egiten duen.

08:02 AM – Aitzol ohe ondoan danborra jotzen. Joder, eta ez dela aspertzen! Nire buruari ohar mentala: hamar urte barru hauek guztiak berari bueltan egitea.

08:03 AM – Aitzol ohe ondoan eskusoinua jotzen. Errepaso mentala etxean dauden musika-tresnei: gitarra bakarrik falta da. Ondorioa: ostrukarena egiten jarraitu, ea behingoz funtzionatzen duen.

08:04 AM – Aitzolek pertsiana altxa eta ohe gainean salto egin du. Gitarraz paso egin du, makalegia da nonbait. Begi bat ireki eta maldizio batzuk bota ditut. Barre egin dit.

08:05 AM – Nire buruari garbi utzi diot: “Nunca mais! Ez dut parranda gehiago egingo!”. Baina nire subkontzientean ezkututzen den ahots zeken batek erantzun du berehala: “Ezta gutxiago ere!”.

Jaiki eta amesgaiztoari aurre egitea erabaki dut. Ez dugu inoiz ikasten.

BARRASKILOA ETA BAREA

Barea bidearen erdian zegoen, lasai, gorputza umeltzen zion euriaz gozatzen. Poliki, bide ertzeko belarretatik atereaz barraskilo bat inguratu zitzaion.

—Zer? Bustitzen? —galdetu zion barraskiloak bareari—. Etxerik ez dualako duk hori! —bota zion lotsagabe.

Bareak ez zion jaramonik egin, eta han jarraitu zuen, arratseko euriaz gozatzen.

—Gure etxe honek baditu abantailak —jarraitu zuen barraskilo handikiak—: euriarekin babes ematen digu, hotzarekin goxotasuna eta, eguzki galdatan gaudenean, itzala. Horregatik gara barraskiloak bareak baino preziatuagoak.

Ernegatzen hasia egon arren, bareak ez zion erantzun, baina barraskilo arrandiak berdin jarraitu zuen:

—Zer sentitzen da hain balio gutxikoa izanda? —galdetu zion barraskiloak buruko antenak zeken mugituz.

Erantzuna entzuteko aukerarik ez zuen izan, une hartan esku bat agertu baitzen euri artetik, eta, barraskiloa airean eramanaz, plastikozko poltsa batean sartu zuen.

—Lasaitasuna sentitzen da! —oihukatu zuen bareak barraskiloak poltsa barrutik entzun zezan—. Jaki bezala ere ez gara preziatuak, eta horrek lasaitzen nau!

Eta bidearen erdian luze etzanda jarraitu zuen, arratseko euriaren umeltasunaz lasai gozatuz.

TRINITATEA

Semea jaio zenean zuhaitz bat oparitu zioten. Zuhaitza baino, kimua gehiago zen, loreontzi batean landatutako arte txiki baten kimua.

—Erabateko pertsona izateko, seme-alabaren bat izan, zuhaitza landatu eta liburu bat idatzi behar da —azaldu zioten oparia ematean. Hitzez hitz hartu zuen berak esandakoa eta, zuhaitza eta semea bazituenez, liburua idaztea erabaki zuen.

Zuhaitza loreontzian eta semea bere amarekin utzi zituen liburua amaitu arte. Bitartean, gela batean sartu eta liburua idazten arituko zen. Sututa ekin zion lanari, bat-batean ohartu baitzen beretzat zein garrantzitsua zen erabateko pertsona izatea, bere trinitatea osatzea.

Egunak eman zituen gelatik irten gabe, paperak eta paperak boligrafoz betez, emaztea eta seme jaio berria ikusi ere egin gabe. Emaztea tarteka gelan sartzen zen berekin hitz egin nahian, baina berak gelatik bidaltzen zuen bakean utz zezan. Liburua amaitzen zuenean egongo zen familiarekin, eta, orduan, pertsona hobea izango zen, osatuagoa. Orduan preziatuko zuten bere balioa. Semea ere aitaz harro egongo zen hazten zenean, bere trinitatea osatu zuelako.

Egunak, ordea, hilabete bilakatu zitzaizkion eta, liburua amaitu zuenerako ez zen etxean beste inor gelditzen. Emazteak agur gutuna utzi zion sukaldean, erotuta zegoela zioen gutuna eta semearekin urrutira zihoala. Berari berdin zitzaion: bera ordurako aita zen eta bere trinitaterako horrek berdin balio zuen.

Balkoira joan zen jarraian, pala bat hartu eta denbora hartan loreontzian egondako zuhaixka mendian landatzeko prest. Baina loreontzian ihartutako adar bat baino ez zuen aurkitu. Zuhaitzari kasurik ez zion egin hilabete haietan, ez urik bota ez ezer, eta bertan ihartu zen.

Orduan ohartu zen bere trinitatea eskutan zuen orri mordo hura baino ez zela.

Haizeak kale bazterretan zabaldu zituen orriak, balkoitik salto egin zuenean.

TXAPELA

Asko probatu zituen arren ez zuen gustukorik topatu.

Batzuek beroa ematen zioten, besteek hazkura. Buruko ile apurrak izerditzen zitzaizkion, aldrebesten, eta gustuko txapelik ez zuen inon aurkitzen. Telazkoak eta felpazkoak, lastozkoak eta amerikanoek ibiltzen zituzten moduko biserak ere probatu zituen, baina gustukorik ez.

Nazkatuta, aldaketarako garaiak atzean utziak zituela erabaki eta aurrera egitea erabaki zuen.

Armairura joan eta goiko apalean ezkutatuta zuen bere betiko txapela atera zuen bertatik.

Hura plazera buruan jantzi zuenean! Bere nortasuna berreskuratuta sentitu zuen, eta ispiluaren aurrean tarte bat eman ondoren, pozik hartu zuen kaleko bidea.

Portaletik atera orduko jendea begira sumatu zuen. Harrituta seinalatzen zuten, batzuek disimuluz, besteek nabarmen hatzekin adieraziz. Ez zien jaramonik egin eta aurrera jarraitu zuen, burua tente, txapela bere tokian norbaitek atzetik bultza egin eta lurrera bota zuen arte. Aurpegia zoru gogorraren kontra zapaldu zioten pistola bat buruan jarrita lurraren kontra eutsiz. Lurrean etzanda inguruko zalapartak entzuten zituen, poliziaren oihuak eta betidanik ezagun zuten auzokoen negarrak.

Lur gogorretik triste begiratu zion agureak burutik erori zitzaion txapelari. Bere aurrean zegoen, lur grisean luze. Polizia batek lurretik jaso eta plastikozko poltsa batean sartzen zuela ikusi zuen, pelikuletan agertzen ziren frogen poltsa horietako batean. Gau horretako albistegia imajinatu zuen berehala: “Detenido un hombre de 82 años por apología del terrorismo. Portaba una txapela igual que las usadas por los terroristas en sus comunicados”.

TXORIA (BARRASKILOA II)

Gizonak txoria izutu zuen bidea igarotzean. Txori txikia, beldurtuta, hegoak zabaldu eta bide ondoko zuhaitz batera igo zen, airean azkar mugituz.

Adarraren babesetik gizonaren mugimenduak jarraitu zituen, adi. Bidearen erdian gelditzen ikusi zuen, euripean makurtu eta berak begiz jota zeukan barraskiloa lurretik jaso eta plastikozko poltsa batean sartzen.

Txio egin zion txoriak, haserre, baina alferrik.

Gizonak aurrera jarraitu zuen, txoriak jan asmo zuen barraskiloa eramanez. Honek triste begiratu zuen euritan hutsik gelditu zen bidea, putzuak baino ikusiko ez zituelakoan, baina, han, bidearen erdian bare bat zegoela ohartu zen.

Berehala egin zuen adarretik salto eta kolpe azkar batez harrapatu zuen barea, beste inork kendu aurretik. Mokoa gorantz zabaldu zuen, barea euri freskoarekin batera irensteko asmoz. Barearen azken mugimenduak sentitu zituen eta, bat-batean barearen ahotsa entzutea iruditu zitzaion.

—Denok gara jangarriak —onartu zuen bareak moko barrutik.

Txoriak ez zion jaramonik egin eta, burua zerurantz altxatuz, kolpera irentsi zuen.

DOMINISTIKUA

Bufanda jantzi duenean egin du lehen aldiz doministiku.

Lankideek ikaratuta begiratu diote, eta nagusiak, oihu bizian, etxera joateko agindu dio. A gripea harrapatu duela pentsatuta kalera atera da beldurtuta, etxera azkar joan eta oheratzeko asmoz.

Jendez beteta dagoen autobusera igo da, baina bide erdian doministiku egin duenean gainerako bidaiariak izutu egin dira. “Gripea dauka” oihukatu du norbaitek eta autobusetik bota dute berehala, ezagutzen ez duen kale-bazter batean utziz.

Ikaratuta, ospitalera joatea erabaki du. Oinez egin du bidea, doministiku bakoitzarekin kaletarren begirada ilunak sentituz bere bizkarrean. Ospitalera iritsita, A gripea duela esan bezain azkar sartu dute gela zuri batean: esterilizatutako laborategia dirudi, eta, han, astronauten antzera arropa isolatzailez goitik behera jantzitako bi pertsona inguratu zaizkio.

—Erantzi arropa guztiak —agindu diote maskaren atzetik—. Oso kutsakorrak dira eta erre egin behar ditugu ezer baino lehen.

Biluzten hasi da azkar, doministiku artean. Bufanda kendu du lehenik, eta hori ukitzean, desberdin nabaritu du. Artilearen gozotasunak gogora ekarri dio berak ez duela artilezko bufandarik erabiltzen.

Artileari alergia dio.

ONDDOA

Zuhaitz ondora iristean, begiak zabal-zabal jarri zituen Arrasategi jaunak.

—Begira! —oihukatu zuen onddoz jositako ingurua seinalatuz—. Dena onddoz gainezka dago! Otarrak beteko ditugu hemen!

Zitzu bizian hasi ziren aita eta alaba otarrak betetzen. Amaitu zutenean, onddo txiki bat baino ez zen gelditzen zuhaitz azpian.

—Txiki hori hemen utziko dugu —azaldu zuen Arrasategi aitak zeremoniatsu—. Hazten utziko dugu, bueltatzen garen hurrengoan onddo gehiago egon daitezen.

Pozik joan ziren aita eta alaba otarrak goraino bete eta onddo txikia zuhaitz azpian bakarrik utzita.

Onddoa haserre zegoen. Txikia izan arren jenio bizia zuen, eta lagunak ingurutik eramaten ikusteak sutu egin zuen. Barrenak borborka sentitzen zituen, haserre, suminduta, malaletxe bizian zegoen.

Ezin zen tokitik mugitu, ezin zuen ezer egin, eta horrek are gehiago sutzen zuen. Arrasategi familia gogora ekartzen zuen bakoitzean azala gorritzen zitzaion, eta orduak eta egunak aurrera egin ahala, gero eta okerrago jartzen zen.

Egun batzuk geroago itzuli ziren aita-alabak zuhaitz azpira onddoaren bila. Inguratzen sumatu orduko gorritu zen berriz onddoa, haserre bizian.

Aita azkar inguratu zen zuhaitz azpira, hazia behar zuen onddoa jasotzera, baina hara iristean harrituta gelditu zen.

—Akabo gure aurtengo onddoak! —esan zuen zuhaitz azpitik.

Onddo txikia behar zuen tokian, gorringo eder bat zegoen orain.

IDAZLEA

Idazlea desesperatuta zegoen.

Atzera-aurrera zebilen, etsita, haserre, bere jardunean blokeatuta... desesperatuta.

Aste horretan bertan entregatu behar zuen ipuina argitaletxean. Guztiak zituen zain: editorea, ilustratzailea, irakurleak... baina ez zitzaion ezer bururatzen.

Bere azken bizipenak ekarri zituen gogora. Lagunek kontatutako anekdota zaharrekin saiatu zen. Egunkari guztiak errebasatzen zituen albiste xelebreen bila, baina alferrik. Ez zitzaion ipuinik bururatzen.

Etsitako idazleen azken errekurtsoa saiatzea erabaki zuen: boligrafoa eskuan hartuta orri zuriaren aurrean jarri eta itsu-itsuan idazteari ekin zion.

Horrela hasi zuen ipuina:

“Idazlea desesperatuta zegoen”.

BANPIROA

Banpiroa kalez kale zebilen, eguneko jatorduaren bila. Zoko ilunetatik mugitzen zen, kalean ikusten ziren pertsona apurak izutu ez zitezen.

Isiltasuna zen bere gakoa, iluntasunean inor ohartu gabe mugitu eta bere harrapakina ustekabean ehizatzea. Auto, farola eta bestelako argiekin, ordea, gero eta zailago gertatzen zitzaion gauez oharkabean mugitzea. Gau hartan ere, eguna argitzeko ordubete eskas falta zela baraurik jarraitzen zuen.

Kalearen bestaldean bikote bat sumatu zuen. Erlojuari begira zeuden, diskusio betean.

Banpiroa ezkutalekutik atera eta, poliki, biktimengana hurbiltzen hasi zen. Kalea isiltasunean zeharkatu zuen, erlojuari begira jarraitzen zuen bikotea ezertaz jabetu gabe. Haien gainera salto egiteko prestatu zen banpiroa: hankak tenkatu eta letaginak atera zituen.

Orduan agertu zen lehen eguzki-izpia zeru ertzean. “Nola da posible?” asaldu zen banpiroa. “Ez da horren berandu!”, pentsatu zuen irtetera zihoan eguzkitik ihes egiteko bide bat bilatzen zuen bitartean.

Mugitzen hasi zenean bi lagunen arteko hizketaldia iritsi zitzaion:

—Esan diat! —bota zuen lehenak erlojuari begira—. Gaur gauean aldatu ditek ordua eta gaur lehenago argitzen dik! Goazen etxera!

Bigarren eguzki izpiak errauts bihurtu zuen banpiroa, gertatu zenaz jabetzen zen bitartean: ordua aldatu zuten bezperan eta ez zen enteratu.

ZIENTZIALARIA

Zientzialariak ez zuen ezertarako astirik: ez bizitzeko, ez ikertzeko, ez gozatzeko. Lanak itotzen zuen.

Zientzialari onen moduan bere arazoari konponbide logiko bat bilatzea erabaki zuen. Bere denbora faltak bazuen arrazoibide bat eta, ondorioz, izango zuen irtenbidea ere. Lanari gogor ekin zion giza klonazioa errealitate bihurtu zuen arte.

Hori izan zen konponbidea eta horri esker bideratu zituen urtetan pilatutako zeregin guztiak: bere lehen klona laborategiko lanetan jarri zuen, aspalditik amaitu gabe zituen ikerketak burutzen.

Bigarren klona bulegoan eserita egoten zen egun guztian, ikerketarako beharrezkoak ziren burokraziak bideratzen: finantzazioa eskatu, paperak zuritu eta artikulua idazten.

Familiari ere denbora gehiago nahi zion eskaini zientzialariak: klon bat bidali zuen emaztearekin egotera eta beste bat seme-alabekin jolastera. Baten faltan, bi.

Bere aisialdian aspaldian betetzeko zituen guztiak egitea erabaki zuen orduan: irakurgai zituen liburuak irakurri, ikusgai zituen filmak ikusi, kirola egin, beste herrialdeak ezagutu..., guztiak nahi zituen egin eta, horretarako, klon bana jarri zuen zeregin bakoitza betetzen.

Amaitu zuenean nekatuta baina, pozik eseri zen, lasaituta. "Orain bai", pentsatu zuen. Egin nahi zuen guztia egiteko behar adina denbora libre zeukan.

Orduan ohartu zen ez zuela ezer egiteko.

Aspertuta zegoen.

EURIA MAITE ZUEN GIZONA II

Euria maite zuen gizona pozik zegoen.

Udazkena iritsi zenetik euria ari zen gogotik egiten. Kaleak bustita zeuden, giroa grisa zen eta bihotza alai sentitzen zuen.

Euria maite zuen gizona gozatzen ari zen.

Eguna joan, eguna etorri, leihotik begiratuta euria baino ez zuen ikusten eta, berak, orduak ematen zituen kristalaren atzean, euri-tanta lodien dantzaz gozatuz. Irratia pizten zuen orduro, eguraldi-iragarpena entzuteko, eta irribarretsu itzaltzen zuen berehala, eguraldiak antzera jarraituko zuela entzun ondoren.

Euria maite zuen gizonak une gozoa bizi zuen. Sobran zituen orain mangera eta bestelako trasteak. Berekin bizi ziren igel eta barraskiloak ere pozik sumatzen zituen: saltoka lehenak, adarrak airean besteak, haiek ere giroaren umeltasuna gozatuz.

Eguna leiho aurrean ematen zuen, kaleak lasterka zeharkatzen zituzten oinezkoei begira, putzuetako ura zipriztintzen zuten autoak txalotuz eta, batez ere, kristala kolpatzen zuten euri-tanten sinfonia gozatuz.

Euria maite zuen gizonak kristal atzetik maitatzen zuen euria. Ez zen kalera irteten.

Bustitzea gorroto zuen.

ITZALI ETA PIZTU

Informatikaria aspaldi jabetu zen edozein arazoren aurrean konponbide bakarra zegoela: itzali eta piztu.

Ordenagailua motel zebilela: itzali eta piztu.

Internet ez zebilela: itzali eta piztu.

Inprimatzeko arazoak: itzali eta piztu.

Paretori kasu eginez, azkar konpontzen zituen eguneko arazoen ehuneko handiena. Baita informatikoak ez ziren arazoak ere:

Autoak zarata arraro bat egiten zuela: itzali eta piztu.

Telebista gaizki ikusten zela: itzali eta piztu.

Fede kontua baino ez zen.

Sendagileak minbizia diagnostikatu zionean ohartu zen, ordea, bere konponbideak ez zuela guztirako balio. Aste batzuk baino ez zitzaizkiola gelditzen esan zioten eta, horren aurrean bere filosofiari eusten saiatu zen, gaixotasuna itzali eta piztu egiteko modua aurkitu nahian.

Etsipen horretan, fede berri baten beharra sumatu zuen, bereak huts egin ziola jabetuta. Garai batean ikasitako dotrinara bueltatu zen, heriotza gertu ikusita, erlijio katolikoari besoak zabalduz. Han egongo zen konponbidea.

Azkar joan zen elizara.

Lehen lerroko aulkietan belauniko garai batean ikasitako otoitzak gogora ekartzen ahalegindu zen. Beldurrak eragindako etsipenaz aldarera begiratu zuen, heldulekua emango zion fedea aurkitu nahian.

Aldareko gurutzea ikusi orduko aurkitu zuen erantzuna. Bere betiko konponbidea zuzena zen, han zegoen froga.

Iribarre batekin atera zen elizatik, bere betiko fedearen balio unibertsalean berretsita. Gurutzean iltzatutako irudiak erakutsi zion, hark egina baitzuen: itzali eta piztu.

GUTUNA

Begiek txiribitak egiten zizkieten katalogoak ikustean: Ben10, Bakugan, Gormiti, Spiderman... bere gogoko pertsonaia guztien jostailuak zeuden han!

Aita irribarretsu zegoen, bere ondoan:

—Gogoko dituzunak aukeratu eta gutuna prestatu Olentzerorentzat —proposatu zion semeari, haren emozioaz gozatuz.

Azkar ekin zion haurrak lanari eta katalogoekin batera zetorren gutun-orria goraino bete zuen hain maiteak zituen pertsonaien izenez. Amaitzean aitari eraman zion pozik.

—Listo, aita! —oihukatu zion emozionatuta gutuna luzatuz—. Hauek eskatu dizkiot Olentzerori.

Aitari begiek txiribitak egin zizkieten gutuneko jostailuek katalogoetan lagun zituzten zenbakiak ikustean: 99, 49'5, 120... Olentzero ez zen horren aberatsa!

—Jostailu garestiak aukeratu dituzu —esan zion semeari bere etsipenean.

—Lasai, aita! —erantzun zion honek berehala—. Olentzerok debalde ekarriko dizkigu!

DURANGO (IDAZLEA II)

Idazlea Durangoko azokara joan zen, pozik.

Argitaletxeok standean egotea proposatu zioten, liburuak sinatzen. Harro joan zen Durangora, inoiz baino idazleago sentituz sinatze-saioa zela eta.

Standaren atzean jarrita, berak idatzitako liburuez inguratuta korridoretan zebilen jendeari begiratzen zion, autografoa noiz eskatuko zioten zain. Pasilloaren bestaldean zeuden standetan ere beste idazle batzuk ikusten zituen. Idazle famatuak eta hain famatu ez zirenak, guztiak zeuden bere antzera standetan sartuta, zooko animalien antzera, liburuak sinatzeko prest.

Are idazleago sentitzen zen orduan, bere burua hainbeste miresten zituen haien pare ikusita, eta burua gehiago tentetzen zuen standaren atzean. Baina burua asko luzatu arren, ez zen inor inguratzen bere liburuak erostera, eta are gutxiago sinadura eskatzera.

Halako batean, emakumezko bat standera hurbildu eta bere azken liburua hartu zuen eskutan.

—Hauxe eramango dut —esan zion idazleari liburua luzatuz.

—Oso ondo! —erantzun zion idazleak pozarren—. Nahi al duzu nik sinatzea?

Emakumeak harridura-aurpegiz begiratu zion.

—Sinatu? —galdetu zion mesfidati—. Zu nor zara ba?

Idazlea inoiz baino gutxiago sentitu zen idazle.

GOLA

Golarekin batera hasi dira oihuak gure auzoan.

Salto batean jaiki naiz sofatik. eta auzo-lagun guztiokin batera atera naiz leihora oihu egitera.

—Goooooooooooool!!!! —oihukatu dugu guztiok aldi berean.

Pareko etxean bizi den gizona ikusi dut balkoian saltoka, pozik. Bere taldearen kolorez hornitutako kamiseta darama soinean, eta txanpan botila zabaldu du oihu artean.

—Goooooooooooool!!!! —oihukatu dugu berriz etxe batetik bestera elkarri poz-keinuak eginez.

Auzoa erotu dela dirudi. Mundua une batez gelditu, eta etsipen guztiak ahaztuta elkarrekin pilota baten balentriak ospatzen aritu gara.

Pixkanaka aurpegi alaiak leihotatik desagertzen joan dira, telebista aurrean dagokien tokitara itzuliz.

Nik ere leioa itxi dut, irribarretsu eta, sofara itzuliz irakurtzen ari nintzen liburua hartu dut berriz esku artean. Ez dakit zeintzuk ari diren jolasten, eta ez zait inporta.

Ez zait futbola gustatzen.

OLENTZERO

Haurrak ez zekien zer sinetsi.

Nork ekartzen zituen opariak: Olentzerok ala gurasoek?

Zalantzak gaineratik kentzeko gogoz, gabon gau hartan misterioa argitzea erabaki zuen. Ohean esna egongo zen, opariak nork jartzen zituen jakin arte.

Gau hartan, ohera sartu eta ahalegin berezia egin zuen esna mantentzen. Ohearen gozotasunean logurari aurre egin zion bere indar guztiekin, opariak jartzen zituen haren nortasuna deskubritu nahian.

Bere gelako atearen zirrikitua zaintzen zuen ohetik, itzal bat ate aurretik noiz pasako zain. Etxeko isiltasuna zelatatzen zuen, edozein soinuren aurrean adi, opariak noiz iritsiko.

Minutuak luzatzen hasi ziren, pixkanaka ordu bilakatuz eta, bitartean, oparien berririk ez.

Bat-batean, norbaitek kaleko atea gogor kolpatu zuen. Olentzero sartu ezinik gelditu ote zen?

Zitzu bizian jaiki zen ohetik eta kaleko atera abiatu zen gurasoak jaiki aurretik. Atea zabaldu eta kaputxa baten atzetik begiratzen zioten begi ilun batzuekin egin zuen topo.

—Zu al zara Olentzero? —galdetu zion haurrak inozentziaz berdez jantzitako gizonari.

Aita etxetik kolpeka eraman zuten gau hartatik aurrera ez zion gehiago Olentzerori oparirik eskatu.

ASMOAK

Urtea amaitzearekin batera urte berrirako asmo onen zerrenda prestatu zuen.

Hasteko, erretzeari utziko zion.

Ez zuen parrandarik egingo.

Edateari utziko zion.

Lan bila hasiko zen.

Zakartasunak utzi eta ingurukoekin atsegina izango zen. Etxekoekin bereziki.

Kirola egiten hasiko zen.

Liburu bat irakurriko zuen.

Zerbait ikasten hasiko zen, hizkuntzaren bat beharbada.

Botila erdi hutsik ikusi beharrean, bete xamar ikusiko zuen.

Finean, orain zen alproja zekena izateari utzita pertsona hobea bilakatuko zen.

Horiek ziren urte berrirako bere asmoak. Urtezaharreko kanpai-hotsak entzutearekin batera behin eta berriz bere buruari errepikatzen zizkionak, hamabigarrenaren ondoren pertsona hobea izango zela konbentzituta.

Familiarekin batera mahatsak jaten hasi zen: dong, bat, erretzeari utziko diot. Dong, bi, ez dut gehiago parranda egingo. Dong, hiru, edateari utziko diot.

Hamabigarrenera iritsi zenerako mahatsak, asmoak eta kanpai-hotsak nahasita zituen. Azken mahatsa ezarrarian trabatu zitzaion eta xanpainarekin bultzada ematen saiatu zen, baina lehen zurrutadarekin ohartu zen edateari uzteko asmoa apurtzen ari zela. Alde batetik xanpaina botatzen hastean, ordea, bestetik mahatsa gehiago trabatu zitzaion.

Asmo onek itota hil zen.

ELUR-PANPINA

Leihotik inguru guztia zuri ikusi zuenean, elur-panpina egitera jaistea erabaki zuen.

Alaba txikiaren betiko ilusioa izan zen etxe aurreko lorategian elur-panpina egitea, baina normalean ez zuen hainbeste elur egiten. Behar ziren traste guztiak hartuta jaitsi zen bera, elurra urtu aurretik lorategian panpina egiteko asmoz.

Panpina handia egitea erabaki zuen, elur nahikoa zegoela aprobetxatuz.

Lehen elur-bola lorategia alde zeharkatuz bildu zuen, ia gerriraino iristen zitzaion bola mardula.

Bigarren elur-bola, gorputzari zegokiona, txikiagoa egin zuen, oreka mantendu nahian. Eta buruarena egingo zuen hirugarren bola txikiarekin errematatu zuen panpina, ia-ia bular pareraino iristen zitzaion elur-panpina ederra osatuz.

Alaba txikiaren tamainakoa.

Lorategian jasotako bi adarrekin egin zizkion besoak, eta, sukaldetik ekarritako azenario eder bat eta galleta pare batekin sudurra eta begiak. Panpina alabaren tamainakoa zenez, horren bufanda eta neguko txapelarekin jantzi zuen, baita haren eskularruak jarri ere adarren muturretan.

Elur-panpina erabat osatuta ikusi zuenean etxera itzuli zen, panpina ederra egin zuela iritzita, alabaren gustukoa seguruenik.

Leiho ondoan eseri zen orduan, etxearen epeltasunaz gozatuz, lorategira begira. Handik primeran ikusten zuen elur-panpina, goiza argitzen zuen eguzkipean argitsu.

Baina goizak aurrera egin ahala, eguzki leunak panpinaren edertasuna pixkanaka bereganatzen zuen, bere gorputz hotza osatzen zuten elur-malutak ur bilakatuz. Sudurra izan zen erortzen lehena eta haren atzetik joan ziren beso eta begiak. Elur-bolaz osatutako panpina, pixkanaka, urtzen hasi zen, bere bizia tantaz-tanta isuriz.

Alaba txikiak isuri zuen moduan.

EBAKUNTZA

San Sebastian bezperan egin zioten ebakuntza.

Arratsaldean.

Ebakuntza-gelara sartu orduko, giro berezia sumatu zuen gelan. Erizainak pozik zeuden, gaueko parrandarako planak egiten. Zirujaua txoko batean zegoen, ebakuntzako tresnak erreparatzen.

—Ebakuntza txikia da —esan zin zirujauak ohean etzan zutenean—. Ohartzen zarenerako amaituko dugu, lasai.

Baina bera ez zegoen lasai. San Sebastian bezpera zen eta Donostiako ospitale batean egin behar zioten ebakuntza.

—Donostiarra al zara? —galdetu zion zirujauari.

—Bai —erantzun zion honek, anestesia prestatzen zuen bitartean.

—Ba, gogoratu danborrada ez dela gauerdia arte hasten —esan zion kamillatik urduri—. Ez entseatu nirekin!

—Ez motel!—erantzun zion zirujauak erizainei konplizitate barre bat luzatuz—. Gure lana serio hartzen dugu. Orain hartu arnasa lasai eta lokartuko zaitugu.

Anestesiaren eragina igartzen hasi zen pixkanaka. Begiak erortzen hasi zitzaizkion, zirujaua lanean hasteko prestatzen zen bitartean. Erabat lokartu aurretik azken begirada bat eman eta erizaina ikusi zuen zirujauari lan-tresnak pasatzen:

Botila bat txanpan eta bi baso.

HERIO

Herio nazkatuta dago.

Bizitzeko ezer ez duten haien gorpu hotzak biltzeaz nazkatuta.

Askotan entzun ditu teologo eta filosofoak berari buruz hitz egiten, eta umorez hartu izan ohi ditu haien hitzak: Herio demokratikoa omen da. Heriok ez omen du bereizten arraza edo kolorerik.

Heriok berdin hartzen omen ditu pobre eta aberatsak.

Eta hala da, pentsatu du heriok. Berak ez du bereizketarik egiten. Baina aberatsek badakite bere atzapar hotzetatik nola ihes egin.

Pobreek, ordea, ez dute horrelako zortetik.

Horregatik, herio, nazkatuta sentitzen da. Nekatuta.

Munduko edozein tokitan lurrikara, tsunami edo antzekoren bat gertatu orduko milaka arima jasotzen ditu. Non bizi ez duten pertsonen arimak guztiak ere. Diru-arazorik ez duenen bat tarteka.

Azken lurrikara hartan beste hainbeste gertatu zaio. Egunak eman ditu arima miserableak ehunka, milaka berekin eramaten eta ez du amaierarik ikusten.

Nazkatuta, eroritako eraikinen harri artera inguratu da, kapa beltza soinean eta sega luzea eskutan hartuta. Bera inguratu orduko lanean ari diren pertsonak baztertu dira, izututa. Badator segalari beltza arimak jasotzera, entzun du inguruan, baina Heriok ez die kasurik egin, bideari eutsi dio hezurretan sentitzen duen ondoeza gailendu ezinik. Zer egin dezake berak, ordea, patuaren aurka? Bere buruaren aurka?

Sega lurrean utzi eta hezur zaharrak lanean jarri ditu, harri eta hondakinak mugitzen. Gorpu hilak alde batera utzi ditu, jaramonik egin gabe. Itxoin dezakete, hildakoek ez dute presarik, berak ongi daki hori.

Ez dira arimak oraingoan bilatzen dituenak. Bizirik gelditzen diren pertsonen bila ari da.

Bere buruari arimak lapurtzeari ekin dio.

BEGIRADAK

“Barkatu” esaten dio aurpegira begiratu gabe.

“Barkatu”, errepikatzen du Ainhoa makurtuta dagoen tokirantz eskua luzatuz.

Ainhoak ez dio begiratzen. Eskua ikus dezake, baina ez da begirada itzultzerantz ausartzen.

Burua gehiago makurtzen du.

Berak laztan bat egiten dio ilean. Motots bat hartu eta fereka arin bat egiten dio. Baina Ainhoak ez dio begiratzen.

“Barkatu”, errepikatzen du, eta Ainhoaren kokotsa hartuz poliki bultzatzen du goraka, neskaren aurpegia begira izan duen arte.

Ainhoak ez du ezer esaten.

Ez dio begirada luzatzen. Aurpegia eskuez estaltzen du.

“Ez didazu barkatuko?”, galdetzen du etsipen ahotsa erabiliz. “Badakizu ez nuela horrelakorik nahi”.

Ainhoak eskuak aurpegitik kendu eta begi ubelduen atzetik begiratzen dio.

Ez dago maitasunik haren begiradan. Ez dago barkamenik Ainhoaren begiradan.

Eta horrek sutu egiten du.

“Putza zaharra!”, botatzen dio haserre. “Ikusten? Zurea da errua, zuk zirikatzen nauzu!”.

Azken begirada ilun baten ondoren hasi zaio berriz kolpeka.

HOTZA

Ile-apaindegirako bidean belarriak izoztu egin zaizkit.

Bidean gurutzatzen ditudan lagunek ere hotz aurpegia dute: txamarra handiak soinean, eskularruak jantzita eta txapela buruan izan arren, hotzak daude.

Nik ez dut txapelik jantzi, eta, horregatik, belarriak izoztuta nabaritzen ditut.

—Betiko moduan moztu —esan diot Anari ile-apaindegira sartu orduko.

—Betiko moduan? —asaldatu da Ana—. Kolean hotz izugarria zagok! Erotu egin al haiz?

Ez diot eztabaidarako betarik eman eta betiko moduan makina hartuta kaskamotz utzi dit burualdea.

Pozik atera naiz kalera, pisu galanta arinduta. Ana sumatu dut ile-apaindegiko kristal atzetik begira, atsekabetuta. Azkar nabaritu dut kaleko hotza buruan, baina, oraingoan, txamarrako patrikatik txapela aterata berehala estali dut kaskoa.

Orain, belarriak bero gorde ditzaket buruko ile guztiak arrotzeko beldurrik gabe.

ZIKLOIA

Haize bolada bortitzek ez zioten Aneri lo hartzen uzten. Zuhaitzetako adarrek astintzean ateratzen zuten zarata, kalean hegan zebiltzan kaxa eta trasteek ateratako hotsak eta, bere gelako pertsianaren astinduek ikaratu egiten zuten.

—Lasai egon —azaldu zion aitak ohean eserita—. Zikloi txiki bat baino ez da eta laster amaituko da.

—Zer da zikloia, aita? —galdetu zion Anek oraindik lasaitu ezinik—. Dorothyren etxea airean eraman zuenaren antzeko zerbait?

Galdera garrantzitsua zen hura Anerentzat, Ozeko aztia baitzen bere ipuin gogokoena eta Dorothy bertako protagonista.

—Antzeko zerbait da —erantzun zion aitak, gabon muxu bat emanaz.

Goxo egin zuen lo Anek gau hartan, eta haizearen orroek Ozeko lurralderaino eraman zituzten bere ametsak. Dorothyren etxearekin gertatu bezala, zikloiak airean eraman zuen bere logela Ozeraino eta, han, txorimaloarekin, letoizko gizonarekin eta lehoi beldurtiarekin batera aritu zen borrokan sorgin gaiztoak mendean hartu arte.

Goizean, esnatu zenean, bizi-bizi jarraitzen zuen ametsetako abenturak bere gogoan. Ez zen haizearen zaratarik gehiago entzuten eta zikloia amaitu zela ikusita, pozik jaiki zen ohetik. Berehala bururatu zitzaion aitari kontatu behar ziola gaueko ametsa, Hiri Esmeraldan egon zela esan behar zion, Dorothy bezala zikloiak airean eramanda.

Pozik, gelako pertsiana altxa zuen egun-argia ikusteko irrikan eta, leihotik kanpora begiratu zuenean harrিতuta gelditu zen.

Ez zuen bere etxe ingurua ezagutzen.

DEMOKRATA (DORTOKA ETA ESKORPIOIA II)

Antonio eskorpioia inguru hartako demokratetan demokratena zen. Norbaitek nahi gabe berekin topo egiten bazuen, edo hitz txarren bat esaten bazion, azkar jasotzen zuen erantzuna:

—Antidemokratikoa zara! —oihukatzen zuen Antoniok.

Bizitoki zuen aintziraren bizilagun guztiekin aritzen zen berdin. Bidean topatzen zuen edonori aurpegiratzen zion ibilbide demokratikoaren falta, inolako salbuespenik gabe.

—Ez zarete demokratikoak —oihukatzen zien txoriei—. Zuek hegan joan eta besteak lurrean uzten gaituzue.

—Demokratik ez dira arrastaka ibiltzen —esaten zien sugeei—. Beste guztien parean aritu behar zarete.

—Zuen hizkuntza inposatu nahi diguzue —botatzen zien arrainei—. Guk ezin dugu ur azpian hitz egin; beraz, antidemokratiko inposatzaileak zarete.

Inguruko animalia, hegazti eta antzeko guztiekin aritzen zen berdin Antonio eskorpioia, bere demokratikotasuna aldarrikatuz behin eta berriz.

Halako batean, aintziran bizi zen ahate zahar bat inguratu zitzaion Antoniori, honen harrokeriaz gogaituta.

—Zergatik uste duzu zu beste inor baino hobea zarela? —galdetu zion ahateak Antoniori—.

Zergatik uste duzu zu zarela inguruko demokrata bakarra?

Antioniok irribarre zeken bat azaleratu zuen eta bere eskorpioi ezten pozoitsua erakutsi zion ahateari.

—Ni naiz inguruko demokrata bakarra —ziurtatu zuen eztena astinduz—, nire pozoiak ez baitu bereizmenik egiten handi edo txiki, ahate edo eskorpioi. Batzuentzat zein besteentzat eragin bera du nire pozoiak. Demokratikoki.

BEKATUA

—Kondoia bekatua da! —oihukatu zuen gizon santuak.

—Baina, jauna —erantzun zion besteak—, kontuan izan gaitzak harrapatzeko dagoen arriskua.

—Gaitzak! —oihukatu zion gizon santuak haserre—. Gizakion gaitzik larrienak gure bekatuak dira! Eta kondoia heriozko bekatua da, ez ahaztu!

—Badakit, jauna —saiatu zen bestea egoera konpontzen gero eta urduriago—, baina HIES eta antzekoak ez dira edonolako gaitzak eta...

—Bekataria! —sutu zen gizon santua—. Erruki zaitez oraintxe bertan esan duzunaz! Jar zaitez belauniko! Makurtu!

—Baina, jauna... —ahalegindu zen bestea oraindik gizon santuaren aurrean lau hankatan jarrita.

—Ez jarri aitzakiarik —moztu zion gizon santuak sotanaren gonak altxatuz—. Gogoan izan, gainera, latexari alergia diodala.

ARGIA

Pasilloaren amaierako gelan argia piztuta zegoen.

Gelako atea ez zegoen erabat itxita, zirrikitu bat ageri zen zabalik, eta, handik, gelako argi leunak ihes egiten zuen korridorearen iluntasunean galduz.

Gelako argia piztuta zegoen.

Eta berak ez zuen piztu.

Korridorearen hasieran zegoen, pauso gutxi batzuetara sumatzen zen argi zirrikitu hari begira.

Etxean bakarrik zegoen, eta berak ez zuen gelako argia piztu. Ez zen gelan sartu.

Ez zelako gela hartan sartzen.

Gaixotasun eta saminez betetako oroitzapenak baino ez zituen gordetzen gela hark, hautsez betetako jostailu eta panpina artean. Horregatik ez zen gela hartan sartzen.

Inoiz ez.

Gelako atea ere itxita egoten zen beti, baina, oraingoan, zirrikitu bat zuen zabalik, argiari ihes egiten uzten zion zirrikitua.

Pauso labur batzuk egin zituen aurrera korridorean. Bere burua zalantzan jarri zuen, erotzen hasi ote zen pentsatu zuen oinak poliki mugitzen zituen bitartean.

Pauso bakoitzak mina eragingo balio bezala mugituz iritsi zen gelaraino. Atearen aurrean gelditzean zirrikitutik ageri zen argiari begiratu zion, itsututa, eta bere barne-demonioei aurre egitea erabaki zuen.

Atea bultza eta azken pauso batekin gela barrura sartu zen.

Une horretan itzali zen argia.

BAKEA

Gizona dendan sartu denean irratia piztuta dutela ohartu da.

Betiko ahotsa iritsi zaio bozgorailutik, betiko politikariaren lelo usatua: “Bakea ez da negoziatzen. Ezin zaio preziorik jarri bakeari”.

Gizonak barre egin du ahopeka.

—Zergatik egiten duzu barre? —galdetu dio dendariak.

—Bakeak baduelako prezioa —erantzun dio gizonak—, eta ez da garestia. Emaidazu *Gusanitos* pakete bat.

Gizonak mostradore gainean hogeita hamar xentimo utzita *Gusanitos* paketea luzatu dio ondoan negarrez duen haurrari.

Berehala isildu da.

URTEURRENA (ERRONKA II)

Iribarretsu piztu dut tartaren kandela bakarra.

—Zer diozu orain? —galdetu diot neure buruari harro—. Erronkari urtebetez eutsi diot!

—Ja! —izan da erantzun zekena—. Ez da denbora-kontua, kalitate-kontua baizik!

Pospoloa oraindik eskutan dudala neure buruarekin haserretu naiz berriz ere. Posible al da urteurrena ere bakean ezin ospatua?

—Ba, kalitatea ez bada, kantitatea behintzat badago —azaldu diot neure buruari—. Urtebetean 43 ipuin argitaratu ditut hemen. Zer diozu horri?

—Zer diodan? —erantzun dut—. Zenbaki horrek ez duela biribiltasunik.

Sututa erronka berria bota diot neure buruari bi aldiz pentsatu gabe:

—Baietz 100 egin!

Esan orduko neure burua barrez sumatu eta tranpan erori naizela ohartu naiz.

Eskizofrenia honek akabatu egingo nau.

KATUA

Katu baten bila aritu naiz, baina ez dut aurkitu.

Ez naiz animalia-denda batera joan, nire moduko katua nahi dudalako: katu librea, kalera ohitua dagoena, hezigaitza. Horrelakorik ez da dendetan aurkitzen, kalean baizik.

Alde zaharreko kaleetan barrena aritu naiz katu bila, jakina baita herri guztietako alde zaharrak direla katuen gordeleku gogokoenak, baina hango katuak ohituegiak daude kaleko bizimodura, eta berehala egin didate ihes.

Handik nembilela, txikitan jolas-toki genuen Katu kaleaz oroitu naiz, eta ziztu bizian joan naiz bertara hango katuak eskuragarriagoak izango diren esperantzan. Baina Katu kalean etxe berriak egiten ari dira orain, eta katuak goxo bizi dira obrako adreilu eta porlan-zakuen artean etzanda.

Baserrietan bizi diren lagunengana jo dut ondoren, baserritarrek beti izaten dituztelako etxean saguak kontrolpean izango dituzten katuak. Nire beharra azaldu diet lagunei, baina barre egin didate, nire xelebrequeria baino ez delakoan.

Ikusten duzu katu bila aritu naizela, gogoz aritu gainera, baina ez dut katurik aurkitu. Horregatik nago oraindik hemen, zurekin hitz egiten, azken zerbeza beharko zukeena eskuan dudala eguna argitzeko zain.

Sikiera katua zain izango banu etxera itzultzeko arrazoiren bat izango nukeelako, baina, horrela, ez daukat etxeratzeko arrazoirik.

Etxean bakardadea baino ez dudalako zain.

IPUINA

Parkean nagoela ipuin txiki bat bururatu zait.

“Aste honetako mikroipuina listo!”, poztu naiz berehala. Azkar ohartu naiz, ordea, etxera itzultzerako ahaztua izango dudala, neure burua halakoa baita, eta lehenbailehen idaztea erabaki dut.

Beti izaten ditut pare bat boligrafo aldean, baina papera falta zait oraingoan. Haurraren karrotxoko poltsa arakatu dut, baina han ez dago ezer. Inguruko paretak miatu ditut, erabil dezakedan kartel baten bila, baina inoiz baino garbiago dago gure auzoa.

Atari bateko publizitate-postontzira inguratu naiz orduan. Orri solte batzuk daude bertan. Pare bat hartu eta boligrafoa atera dut berehala. Publizitate-orriak satinatuak dira, plastiko modukoa dute azalean eta boligrafoak ez du hor idazten. Bigarren boligrafoarekin ahalegindu naiz orduan. Honek bai, honek idazten du, baina tinta ez da lehortzen. Ez daukat beste boligraforik, ezta beste orririk ere. Arriskatzea erabaki dut ondorioz.

Ipuina amaitu dudanerako orria zikin agertzen da, han-hemenka tinta zabaldu delako, baina letrak ongi nabaritzen ez diren arren ipuina irakur daiteke oraindik. Patrikan gorde ditut orriak, iluntzean ordenagailura pasatzeko.

Etxera itzuli bezain pronto, ordenagailu aurrean eseri, orriak atera eta ipuina garbira pasatzeko prestatu naiz. Baina orrietan ezin da ezer irakurri.

Tinta erabat zabaldu da.

Nire burmuina arakatu dut orduan, arratsaldean bururatutako ipuinaren arrastoren bat aurkitu nahian, baina hasi aurretik badakit ahalegina alferrikakoa dela. Nirea arrainen memoriaren parekoa da.

Pantaila hutsari begira gelditu natzaio, hatzak teklatu gainean jarrita.

Aste honetan ere, ez dago mikroipuunik.

BEGI BERDEAK (KATUA II)

Lagun batek eman zidan katua.

Katu emea.

Begi berdeak zituen. Liluragarriak.

Pozik eraman nuen nirekin etxera, eta lehen egunetan nire alaba izango balitz bezala zaindu nuen: jakirik gozoenak prestatzen nizkion. Eguneko esnea ekartzen nuen azokatik, freskoa edan zezan, eta asteburuetan kaletik goiz erretiratzen nintzen, etxean norbait zain nuenaren aitzakian. Egia zen, katua nire zain egoten baitzen.

Bizimodua erabat aldatu zidan.

Asteak aurrera joan ahala, ordea, kontrolpean sentitzen hasi nintzen. Bazkaria garaiz prestatzen ez banuen, edo etxea txukun mantentzen ez banuen, beti egiten nuen topo katuaren begi berdeekin. Nire jarrera gaitzesten zuten begi berdeak.

Okerrena asteburuetan izaten zen. Lehen asteetako euforia pasata, azkar berreskuratu nituen betiko ohiturak, eta kalean berandu arte gelditzen nintzen lagunekin. Parrandatik bueltan isilpean sartzen nintzen etxera, katua ez esnatzeko ahaleginetan, baina alferrik zen. Han egoten zen bera, etxeko sarreran nire zain, begi berde haiekin begira. Etxearen isiltasunean begira.

Eta ni, errudun sentitzen nintzenez, gero eta gogorragoa egiten zitzaidan etxera itzultzea.

Horregatik nago oraindik hemen, zurekin hitz egiten, azken zerbeza beharko zukeena eskuan dudala eguna argitzeko zain.

Etxean badudalako norbait zain. Eta beldur naiz.

Begi berde haien beldur.

HEGAZKINA

Betidanik jakin zuen hegazkin batean hilko zela. Eta hala izan zen.

Hegazkinak makina hiltzaileak baino ez ziren haren ustez. Ez zuen ulertzen milaka kilo pisatzen dituen traste batek airean egotearen arrazoia. Ez zuen zentzurik.

Hegazkinera igo aurretik hasten zen bere kalbarioa. Urduri jartzen zen, egingo zuen eguraldiaren beldur etengabe zerura begira: euria egiten bazuen gaizki, lur-hartzea zailduko zuen. Haizea bazegoen okerrago, hegazkinak danbatekoak jasango zituen. Lainotuta bazegoen ere ondo ez, turbulentziak izango zituzten.

Urduri ematen zituen hegazkinera igo aurreko orduak, baita igo ondorengoak ere.

Leihatilatik urrun esertzeko ahalegina egiten zuen, korridorearen ondoan, altueraren beldur. Baina bere izua ezin zuen ezkutatu, eta ondoan zuen edonori kontaktatzen zion bere jasanezina:

—Eroriko gara! —iragartzen zuen eseri orduko—. Horrelako traste bat ezin da airean egon.

Denak hilko gara!

Erabat konbentzituta baitzegoen gazte hiltzekotan hegazkin batean izango zela. Eta halaxe hil zen.

Bihotzekoak jota.

BIZITZAK (KATUA III)

—Ezin nuen bere begirada gehiago jasan —azaldu diot ertzainari—. Horregatik hil dut.

Polizia-etxeko gela txiki batean nago, bi ertzainen aurrean eserita, eskuak loturik.

—Ez nuen hil nahi —errepikatu diet—. Maite nuen, benetan maite nuen. Baina ezin nuen horrela jarraitu.

—Askotan entzun dugu hori —erantzun didate hotz zigarroen kearen atzetik.

—Kalera irteten nintzen bakoitzean errudun sentiarazten ninduen —ahalegindu naiz azaltzen—.

Lagunekin parrandan egon ondoren etxera itzultzeko beldur izaten nintzen, bere begi berde akusatzaileekin topo egiteko beldur. Ezin nuen horrela bizi.

—Horregatik hil duzu? —galdetu dit berriz bi ertzainetan altuenak.

—Bai —erantzun diot malko artean—. Parrandatik itzuli eta han zegoen, zain, bere begi berdeez begira. Mozkorren oldarraldia izango zen, baina eromenak jota, unean bertan hil dut. Zazpi bizitza izango zituela uste nuen, eta berpizten ikusi nahi nuen, benetan! Baina, lehenengoan hil da. Ez da gehiago mugitu.

—Zergatik diozu zazpi bizitza izango zituela? —galdetu dit bigarren ertzainak.

Harrituta begira gelditu natzaio.

—Katua zelako —erantzun diot harriduraz—. Deitu dudanean ez al dizuet azaldu?

Bi ertzainek elkar begiratu dute eta gela txikitik atera dira, haserre.

Mozkorren ziegan pasarazi didate gaua, bakardadean.

Nire kontzientzia damutuaren konpainiaz.

OGITARTEKO SUIZIDA

Ogitartekoa triste zegoen.

Mespretxatua sentitzen zen, arbuiatua. Ez zen gustagarria, ez zen gozoa... ez zuten nahi.

Arratsaldean prestatu zuten. Ogi egin berria zabaldu eta tartean urdaiazpiko-egosi freskoa sartu zioten. Gustagarria edozein haurrentzat, edo, hala uste zuen berak, behintzat.

Amak haurrari eskaini zionean muzin egin zuen honek berehala.

—Jo, ama! Gaur ere urdaiazpikoa! Ez dut nahi! —eta ogitartekoa ukitu ere egin gabe bizkarra eman zion amari.

Amak, haserre, ogitartekoa eskutan jarri zion haurrari.

—Jateko esan dizut! —agindu zion zakar—. Zer da, ba, ume hau, jateko delikatua!

Haurrak ogitartekoa hartu eta lurrera bota zuen. Ogitartekoak mina sentitu zuen bere ogi xamurrak lur gogorra kolpatu zuenean, eta triste sentitu zen.

“Ez naute gustuko”, pentsatu zuen berriz, eta horrek, bere tristura areagotu zuen.

Amak zigortu egin zuen haurra, eta ez zion utzi lagunekin jolasten. Ogitartekoa karrotxoaren gainean jarri zuen eskolako karpetaarekin batera, eta haurra eskutik helduta abiatu zen mandatuak egitera.

—Jan beharko duzu ba! —bota zion haserre haurrari, baina honek ezetz egin zion buruarekin egoskor, badaezpada ahoa zabaldu ere egin gabe.

Ogitartekoak karrotxoaren gainetik jarraitu zuen ika-mika, bere tristuraren belztasunean murgilduta. Handik ikusi zituen amaren haserre eta haurraren kopeta iluna. Karrotxotik ikusi zuen herriko plazara gerturatzen ari zirela, eta orduan hartu zuen erabakia. Bere buruaz beste egingo zuen.

Herriko plazaren erdira iristean egin zuen salto karrotxotik, bi aldiz pentsatu gabe. Bazekien norik estimatuko zuen bere gozotasuna.

Eta inor konturatu aurretik, ahateen urmaelera egin zuen jauzi.

MALKOAK (KATUA ETA IV)

Begi berdeak malkoz bete zaizkio berriz.

“Katuek ez dute negar egiten”, esan dio bere buruari.

Baina berriz malkotu zaizkio begiak.

Katua zoriontsua izan da. Orain arte.

Nagusiaren laztanak jaso ditu etengabe. Jakirik gozoenak dastatu ditu. Ohe berean egin dute lo.

Zoriona ezagutu du katuak bere bizitza labur horretan. Baina amaitu da.

Banatu direnean amaitu da.

Banaketa pixkanaka joan da gertatzen, oharkabean, baina gertatu da.

Katua gero eta bakartiago sentitu da etxean, gero eta urrunago. Nagusia maiztasun handiagoz hasi da kalera irteten, gauez irteten eta berandu itzultzen. Eta itzultzean, katuaren ferekei ez die jaramonik egin, begiradei muzin egin die. Urruntzen joan da, pixkanaka.

Katuak bere begi berdeez jarraitu du nagusiaren urruntzea, egunez egun mina sentituz, egunez egun malkoak irentsiz.

Gehiago jasan ezin izan duen arte. Orduan, bere buruaz beste egitea erabaki du katuak eta leihotik egin du salto. Baina alferrik. Katuek zazpi bizitza dituzte.

Behin eta berriz errepikatu du ahalegina, eta seigarren jauziaren ondoren kikildu egin da. Badaki zazpigarrenean hilko dela, eta horren aurretik nagusiari azken aukera ematea erabaki du.

Etxeko atearen aurrean eseri da, nagusia noiz itzuliko zain, eta goizeko ordu txikitan atea zabaltzen sumatu duenean begira geratu zaio.

Bere begi berdeen intentsitate guztiarekin begira.

ARGAZKIA

Emakumeak elkarren ondoan jarri dira, pozik kamerari begira.

Gizonak dauka kamera eskutan, eta argazkia ateratzeko begien parera jaso du. Aurrean dituen lau emakumeak argazki eder batean nahi ditu erretratatu, oroigarri polita izango delakoan.

Kamera tinko eutsi du, ongi fokatuz, emakumeak eta haien atzean ageri den Eiffel dorrea primeran erretratatu nahian.

—Egin irribarre! —eskatu die emakumeei.

Baina emakumeek ez dute irribarrerik egin, argazkirako prest jarraitu duten arren.

Zertarako egin irribarre aurpegia burkaz estalia dutenean?

Klik.

KAFESNEA

Leioako kafetegian kafesne bat eskatu dut.

—No te entiendo —erantzun dit zerbitzariak lehor.

Pazientziarekin hartu eta poliki ahoskatzen saiatu naiz.

—Ka-fes-ne bat —esan diot ahoa asko zabalduz.

—¿Que no te entiendo! —errepikatu dit berak kopeta are gehiago ilunduz.

Haserre, amore ez ematea erabaki dut. Hizkuntza unibertsalaren laguntzaz, behatz bat jarri diot begien parean eta hitz magikoa errepikatu dut:

—Kafesne.

—¿Te he dicho que no te entiendo! —bota dit zakar, baina ni ere ez nago atzera egiteko gogoz.

Kosmopolitarena egitea erabaki dut orduan, eta honela eskatu diot:

—White coffee, please.

Zerbitzariak begiradarekin birrindu nau, baina oraingoan buelta eman eta kafesne bat prestatu dit gogo txarrez. Katilua barra gainean utzi eta muturra okertuz prezioa esan dit:

—Un euro veinte —bota du kopetilun, eta nik, kafesnea lasai zurrupatzen dudana bitartean honela erantzun diot:

—Ez dizut ulertzen.

EXCUSE ME

Londresera iritsi orduko ingelesezko lehen ikasgaia eman zion aitak:

—Ingelesak oso edukazio onekoak dira —azaldu zion sei urteko semeari—. Beraz, zuk beti “Excuse me” esan jende guztiari.

Aitaren harridurarako berehala egin zion kasu semeak. Aireportuko orgatxoak bultzaka zebilela “Excuse me” esaten zien parean jartzen zitzaizkion guztiei. Hotelera iritsita ere halaxe esan zien igogailuaren zain aurrean zituztenei, eta haiek barrez erantzun zioten gizon txiki bat zela iritzita. Bazkaltzeko orduan, berdin jardun zuen buffeteko errenkadan aurretik zituen gizon-emakumeekin, eta guztiek erantzuten zioten hitz goxoekin, aitaren harrotasunerako.

Aita pozarren zegoen. Semea bihurria zela esan zioten gehiegitan, baina Londresen erakusten ari zen jarrera oso bestelakoa zen. Iluntzean, telefonoz hitz egin zuten etxekoekin eta berehala azaldu zion semeak amari bere lehen egunean ingelesa ikasi zuela.

—Badakit ingelesez, ama! —oihukatu zuen telefonotik pozarren.

—Benetan? —galdetu zion amak—. Zer ikasi duzu esaten?

—Excuse me! —erantzun zion harrotasunez ondoan zuen aitari begira.

—Eta zer esan nahi du horrek? —jarraitu zion amak ezjakinarena eginez.

—Kendu paretik! —itzuli zion azkar semeak, eta aitari mundua lurrera erori zitzaion.

ODOLUZKIA

Sanferminetako txupinazoarekin batera jaio zen odoluzkia.

Txanpan eta kalimotxo tragoen artean jaio zen, pozik, festa-giroan bizi-bizi!

Odoluzkiaren jabeak, berehala igarri zuen hark eragindako azkura, baina ez zion garrantzirik eman. “Joango duk!” pentsatu zuen, eta jai-giroan jarraitu zuen gustura.

Bazkalosteko kuba-ronek bizi-poza eman zioten odoluzkiari, eta zezen-plazako meriendan irentsitako txorizo eta tripakiek gorpuztu zuten. Goizean jaiotako bolatxoa, pin-pon pilota mardula bihurtu zen iluntzerako!

Bere jabeak gero eta azkura deserosoagoa igartzen zuen atzealdean, baina sanferminetan ez zen, ba, horretaz kezkatuko! Azkar bururatu zitzaion irtenbidea:

—Anestesiatu eta kito! —erabaki zuen, eta gogotsu ekin zion lanari.

Gaueko kuba-ronen artean zorientasuna aurkitu zuen odoluzkiak. Hura zen bere giroa!

Bikaintasunerako bidea!

Bere jabea, aldiz, gero eta baldarrago zebilen. Anestesiak ez zizkion ipurdiko minik kentzen, baina balantza ederrak eragiten zizkion, bestalde.

—Utikan! —oihukatu zuen minari eutsi ezinik, eta espaloi gainera ipurdiz erortzen utzi zen bere ezinegona kitatu nahian.

Txupinazoarekin batera jaiotako odoluzkia odol-txupin baten modura lehertu zen Sanferminak gorritz tindatuz.

GAIXOA

Gizona ikustean ikaratu egin naiz.

Poliki irten da autotik, min hartzeko beldurrez bezala. Argala dago, ezin argalago. Disimuluz begiratzen ahalegindu naiz, nabarmen ez aritzeko, baina ezin diot begia gaintetik kendu.

Aurpegia bi begi handik betetzen diote, beste ezerk ez. Azala masailean itsatsita bezala dauka, azala eta hezuraren artean inolako haragi edo giharrik ez balu bezala. Kamiseta tiranteduna darama soinean, eta albotan ageri zaizkion beso iharrek zuhaitz zahar baten adar lehorrak ekarri dizkirate gogora.

Ikusi orduko ikaratu naiz, gaixotasun larria duen pertsona bati begira nagoela konbentzita.

—Begira horri —esan diot Itziarri disimuluan—. Gaixotasun terminala duen norbait izango da?

Itziarrek arraro begiratu nau.

—Zu erotu egin al zara? —galdetu dit nire harridurarako—. Ez al zara gogoratzen gaur dela mendiko ultramaratoia?

Are ikaratuago begiratu diot orduan kirolariari zapatilak lotzen dituen bitartean.

NEURONAK (IDAZLEA III)

Idazlea desesperatuta zegoen.

Berriz.

Orri zuriaren aurrean eserita zegoen, boligrafoa eskuan hartuta, zer idatzi ez zekiela.

Bere neuronek lan egiteari uko egin ziotela zirudien.

—Azken ahalegin bat —erregutu zuen gorantz begira, neuronek bere begirada tristea jarraituko balute bezala.

Baina neuronek ez zioten jaramonik egiten.

Burmuinean sakabanatuta zeudela zirudien, batak bestearen berri izan gabe, harremanik gabe, ideiarik sortuko zuen kontakturik egin gabe.

Idazlea desesperatuta zegoen. Boligrafoa orriaren gainean jarritz kontzentratzen saiatu zen.

Ahalegin berezia egin zuen, indarrez, kopeta izerdi-tanta txikiz estaltzeraino saiatuz.

Eta bat-batean... han zegoen! Txinparta baten modukoa sentitu zuen burmuina astinduz!

Neuronek elkar konektatzean sortutako elektrizitate-karga igarri zuen, gerturatzen den trenak bidean eragindako bibrazioaren antzekoa.

Bere buruan iturri zahar bat zabaldu zela iruditu zitzaion, hoditeriaren astindua sumatzen zuen, eta adi-adi gelditu zen, hodiaren beste aldetik iristear zegoen jarioaren zain. Boligrafoa tinko heldu zuen eskuan, iritsiko zen isuria harrapatzeko prest.

Urrutian sentitutako dardarizoa gerturatuz joan zen, bere gorputzera zabalduz, besotik azkar jaitsi eta eskuraino iritsiz. Azkenik, hatzetan sentitu zuen inurridura, boligrafoa orri zuriaren gainean dantzan hasi zen, eta konturatzerako neuronek bidalitako mezua agertu zen paperean:

OPORRAK BEHAR DITUGU

ARRAINAK

Arrainak maite zituen.

Arrain tropikalak bereziki. Ehunka zituen etxean, gela guztietan sakabanatutako arrainontzietan gordeta, ur berotan igerian.

Lan egiten zuen talasoterapiaren antzeko ur berotan igerian.

Lan-ordutan bere arrainak izaten zituen gogoan, haiek talasoterapiako piszina libre zoriontsu ibiliko zirela pentsatuz, handitasun hartan igeri eginez, ur-zurrusta, jacuzzi eta igerilekuko ur-lasterretan jolasean. Egunero uretan egon ohi ziren agureek baino gehiago gozatuko zuten.

Agureak gorroto zituen.

Egunero betetzen zen igerilekua adineko jendeaz. Hamarnaka, ehunka joaten ziren, kanpotik iritsitako autobusetatik jaitsi eta igerilekua arrapaladan betez. Guztiek zituzten minak eta beharrak: bateko erreuma eta besteko ziatika, eta dena ur bero haietan sendatzea espero zuten.

Bere arrainek merezitako ur gozoak, hainbeste gorroto zituen agureen mesederako. Horrek amorrarazten zuen, eta bere onetik ateratzen zuen. Orduak ematen zituen bere arrainentzat ur bero haiek nola eskuratu imajinatzen, zorion une horrekin amesten.

Amets egiteari utzi eta aurrera egitea erabaki zuen arte.

Agurez betetako azken autobusa iritsi zenean igerilekua beti bezala ikusten zen. Aitona-amonak elkarri bultzaka sartu ziren uretara, ur-zurrusta onenak lortzeko ahaleginetan presaka, beste ezertan erreparatu gabe.

Bere baitan irribarre egin zuen lehen oihuak entzun zituenean. Zoriontsu sentitu zen oihuak areagotzen zirela entzutean. Bere arrainak pozik zeuden orain, ur handitan igerian, ur berotan jolasean.

Janariarekin, gainera.

Bere pirañek merezi zutelako hainbeste.

KANPOSANTUKO ZAINZAILEA

Eguneko txanda ez dut gogoko.

Hilobiak txukundu eta belarra moztu behar izaten dut; bisitan etortzen direnei azalpenak eman, eta batez ere jendearen kuriositatea asetzen aritzen naiz:

—Zer moduzkoa da kanposantuko zaintzailearen lana? —galdetzen didate behin eta berriz jakin-minaren morboa aurpegian islatuta.

—Lana da —erantzuten diet nik. Zer bestela?

Askok uste dute lan itsusia dela, aspergarria, beldurgarria inguruagatik. Gaueko txandan batez ere.

Baina nik nahiago dut gaueko txanda.

Ez dut zeregin berezirik izaten, iluntasunean bakean dagoen kanposantua zaintzea baino ez.

Ikara emango duela esaten didate, baina niri ez zait hala iruditzen.

Aspergarria izango dela esaten didate, baina ez naiz aspertzen.

—Bakartia izango da, ordea —esaten didate hori erantzuten dudanean.

Harriduraz begiratzen diet nik horrelakoetan, eta egia erantzuten diet:

—Gauetan ez nago bakarrik.

PLAÑIDERA

Plañidera hiletaz hileta ibiltzen zen.

Egunkari eta kaleko eskelak zaintzen zituen, eta herrian eta ingurutan hiltzen ziren guztien jarraipena egiten zuen. Gertutik ala urrutitik ezagun zuen norbait hil orduko, bere arropa onenak jantzi eta beilatokira abiatzen zen, hainbat alditan antzeztutako funtzioa eskaintzera.

Horixe zuen gogokoen.

Beilatokian ezagun zituen eta ez zituen guztiei ematen zizkien doluminak negar-malko beroen artean.

—Zu familiakoa al zinen? —galdetzen zien zuzenean begiak zapiarekin lehortuz.

—Ni alaba naiz —izaten zen erantzun harrtua askotan, eta horrelakotan, arrain handia harrapatu izanaren pozarekin bere errepertorioko esaldirik onenak baliatzen zituen *plañiderak*, bestearen negar-malkoak azalerazi arte.

Hiletaz hileta aritzen zen, urteak zeharkatuz, hildakoak bidean utziz. Neskazaharra zen, ez zuen familiarik eta bere buruari erronka jarri zion: ezagun zituen guztiak baino luzeago bizitzea.

Halaxe egin zuen, ezagun eta lagunak banan-bana beilatokian bisitatuz, agortzen ez zitzaizkion malkoak isuriz. Unea iritsi zitzaion arte.

Plañidera hil zen egunean, beilatokia hutsik gelditu zen. Ez zen inor geratzen hari azken agurra emateko, ezta malko bat haren alde egiteko ere.

Kanposantuaren bakardadean lurperatu zuten.

GAIZTOAREN ZALDIA

Gaiztoa tiroka atera zen banketxetik.

Airera pare bat tiro egin, eta diruz betetako zakua zaldian lotzera joan zen laster batean.

Bi zaldi zeuden lotuta banketxe kanpoan: bat bere betiko zaldi beltza zen, zaldi urduria, azkarra zalantzarik gabe. Ondoan zaldi zuri bat zegoen, itxura lasaiarekin, motela seguru asko. Gaiztoa bere zaldi beltzera zuzendu zen azkar, baina azken unean zalantza egin zuen.

“Zaldi motelena hartzen dut beti”, pentsatu zuen bere baitan, “eta nazkatuta nago. Oraingoan ez naute harrapatuko”.

Bere zaldia hartu beharrean zaldi zuria hartu zuen, bere zortea aldatzeko asmoz. Zaldi gainera igo orduko, ziztu bizian atera ziren biak, bere zaldi beltzak inoiz egingo ez lukeen moduko lasterraldia eginez.

—Aupa! —oihukatu zuen gaiztoak pozik zaldi gainean—. Oraingoan ez naute harrapatuko!

Eta ez zuten harrapatu, abiaduraren poderioz amildegi batetik behera erori baitzen.

Ez zegoen hain azkar zamalkatzera ohitua.

TXAKURRA

—Ez du ezer egiten. Benetan.

—Zergatik diozu hori?

—Fama txarra duelako. Txakur arriskutsuen zerrendetan lehena delako. Lo egin nahi dut.

—Oraindik ez. Jarraitu hizketan.

—Txakur zintzoa da. Non nago? Muturrekoa eraman behar duela esan didate askotan, baina zintzoa da. Logaleak nago, utzi lo egiten.

—Berehala egingo duzu lo, eutsi pixka bat gehiago. Ederki ari zara! Zergatik ez diozu muturrekoa jarri nahi txakurrari?

—Zintzoa delako, esan dizut! Ez du inoiz... ez da...

—Ez hartu lo!

—Ez da... non...

—Ez! Ez! Lo ez!

—...

—Kaka! Joan egin zaigu! Uf! Apunta: heriotzaren ordua, arratseko laurak eta hogeit hamar minutu.

—Heriotzaren arrazoi moduan zer jarriko dut?

—Txakur-eraso baten ondorioz jasandako zauriak.

ADIERAZPENAK (TXAKURRA II)

- Traturik onena jaso du, guztia faltsua da —azaldu du poliziak.
- Betiko asmakizunak baino ez dira —adierazi du politikariak.
- Gezurren jatorria jazarri eta epaituko dugu —agindu du epaileak.
- Oinarririk gabeko hitzak dira, ezin ditugu kontuan izan —baloratu du kazetariak.
- Gizarteak ezin ditu horrelakoak aintzat hartu —eskatu du Lehendakariak.
- Bera eta bere ingurukoak Infernuko sutan kiskaliko dira —iragarri du gotzainak.
- Zer jarriko dut txostenean? —galdetu du idazkariak.
- Bere burua behin eta berriz paretaren kontra bota ondoren hil dela —zehaztu du forenseak.

MALKOA

Malkoa amaren masailetik behera irristatu da.

Poliki egin du bidea, maitekiro. Sentimendu-karga osoa darama bere umeltasunean, barren-barrenetik sortu, hazi eta isuritako sentimenduak: bihotzean, urdailean, biriketan, ariman sentitutako mina begietatik isuri balitz bezala.

Eztiki irristatu da masailetik, kokotsa ukitzeraino. Amaren azala laztandu du bere bidean, malko gaziaren berotasun goxoa sufrimenduz betetako gorputzean zabaldu nahian. Kokotsean emeki zintzilikatu da, barrenean daraman maitasun-karga kontu handiz aireratuz, eta amaren azala atzean utzita, haurraren masailean lehertu da, azken orduko muxu goxo baten moduan.

Amaren maitasuna alaba azken aldiz ferekatuz.

LIBURUA

Liburu berrien usaina maite dut.

Zirrara berezia sentitzen dut liburu erosi berria zabaldu eta haren orrialde gozoen artean sudurra sartuta arnasa sakon hartzean. Ez dago horrelako sentsaziorik.

Haurra nintzelarik eskolako lehen eguna maite nuen. Liburu berriak jasotzen genituen, eta haien orrialdeak zabaltzean biziko nuen plazer-eztandaren irrikan egoten nintzen. Eskolako lagunek ezin zuten ulertu liburu berriak jasotzeak eragiten zidan poza, eta arraro begiratzen zidaten orrialde artean murgilduta aurpegiatzen nuen estasi-begirada ikustean.

Heldutasunera iristean, liburu-dendak bihurtu dira nire plazeraren tenplu. Liburuz liburu nabigatzen dut orrialde inprimatu berrien artean gozamen uneak biziz. Orduak joaten zaizkit hango usain eta zorabioetan galduta.

Horregatik, nire urtebetetzean pozarren zabaldu dut oparia biltzen zuen kaxa, urtero oparitzen didaten liburu berri-berria eskutan izateko desiran, han ezkututzen diren orrialde gozoetan zain izango dudana plazeraren bila.

Ez da izan, ordea, nik espero nuen modukoa.

Liburu elektronikoek ez dute berri usainik.

SUPERHEROIA

Haurra zelarik superheroiak miresten zituen.

Bere burua koloretako mailak jantzita imajinatzen zuen, bera baino indartsuago zirenen aurkako borroka gordinean. Garaiezin irudikatzen zen, identitatea gordetzen zioten betaurreko aerodinamikoek mozorrotuta, gorputzean itsasten zitzaizkion arropa estuak jantzita.

Boteretsu, ahalguztidun.

Heldutasunera iristean bete zuen ametsa.

Astebururo koloretako mailak janzten zituen, arropa estuak soinean, betaurreko aerodinamikoak aurpegian, eta bere ibilgailuaren gainean mapan aurkitzen zituen errepiderik malkartsuenak zeharkatzen zituen. Boteretsu sentituz bihurgunez jositako errepideetan ibiltzen zen, bera baino indartsuago ziren haien haserrea bizkarrean sentituz, bere boterearen aurrean jasaten zuten ezintasunarekin gozatuz.

Maldaz malda, bihurgunez bihurgune, hobeto sentitzen zen, bizikleta gainean zorientsu.

Auto-gidari haserretuen bozina-hotsen artean, ahalguztidun.

ESPERANTZA

Sei zenbakik osatzen zuten bere esperantza.

Bizitza hobearen esperantza.

Mimoz eta maitasunez gordetzen zituen diru-zorroan, ezustean galduko zituen beldur, ezer gabe gelditzeko beldur.

Bizitza berri horren argazkia ere oso present zeukan: Bora-Borako paradisua. Hango uharteen argazkia jarria zuen ordenagailuko idazmahaiian, eta lan-ordutako asperraldian bertan zegoela amesten zuen.

Sei zenbaki zirelako bere esperantza.

Desesperantzan itotako esperantza.

DESESPERANTZA

Sei hilabetek osatzen zuten bere desesperantza.

Bizitzaren amaieraren desesperantza.

Mimoz eta maitasunez gordetzen zituen bihotzean, ezustean joango zitzaizkion beldur, ezer gabe gelditzeko beldur.

Bere bizitzaren argazkia ere oso present zeukan: bere familia. Gertuko senideen argazkia jarria zuen ospitaleko gelako paretan, eta oheko asperraldian haiekin zegoela amesten zuen.

Sei hilabete zirelako bere desesperantza.

Esperantzan itotako desesperantza.

ANGULAK

Gabonetan angulak jatea erabaki zuen.

Benetako angulak.

Askotan azaldu zien seme-alabei bera haurra zenean kiloak hartzen zituztela ibai-bazterrean.

Gabonetan angulak jaten zituzten orduan, benetako angulak.

Semeek ez zuten guztiz sinesten, ezta guztiz ulertzen ere, beraiek jaio zirenetik angulak urre-prezioan erosten ziren izaki mistikoak zirelako. Baina gustura entzuten zituzten aitaren istorioak, beste garai bateko kondairak entzungo balituzte bezala.

Horregatik, Gabon bezperan ganbaran gordetzen zituen sare, otar, eta bestelako gailu zaharrak hartuta ibai-bazterrean joan zen garai bateko angulak harrapatzera.

Etxera esku-hutsik eta hotzak akabatzen itzultzean onartu zuen ez zegoela garai honetan angulak jaterik, ez behintzat lehorretik harrapatuta, eta are gutxiago erosita. Baina seme-alabei agindua zien angulak jango zituztela, eta ez zien huts egingo.

Eroskiko Gula pakete batzuk erosita pazientzia handiz aritu zen banan-bana guztiei begiak marrazten. Txipiroi tinta erabili zuen, zapora arraroa izan ez zezaten, eta paketez pakete eta gulaz gula, guztiei margotu zizkien begiak, benetakoen itxura emanaz.

Gabon-gauean harrotasunez prestatu eta zerbitzatu zituen bere *angulak*, eta familiarekin eserita afariaz goatzera prestatu zen.

—Gutxitan jango dituzue benetako angulak —esan zien irribarre batekin, bere *angulak* plateretan zerbitzatzeko zituen bitartean.

Baina seme-alabek nazka aurpegia jarrita platerak baztertu zituzten.

—Nola nahi duzu hori jatea? —bota zioten muzin keinu batekin—. Begiak dituzte!

NEGAR

Aitak ez zidan negar egiten irakatsi.

Beste gauza asko irakatsi zizkidan, gauza txikiak eta gauza handiak. Gauza garrantzitsuak eta baita hainbeste inporta ez zutenak ere.

Baina negar egiten ez.

Amua lotzeko korapiloa egiten bezalako gauza sinpleak irakatsi zizkidan, baina baita pertsona izateak daraman konplexutasuna ere. Ideia txiki baino garrantzitsuak barneratu nituen hari esker: ingurumena maitatzea, liburuak gozatzea, bizitzan uneoro adi egotea. Sentimendu handi eta sakonak transmititu zizkidan egunero: konpromisoa, errespetua, askatasuna eta inplikazioa bezalakoak.

Gauza asko irakatsi zizkidan aitak, baina negar egiten ez.

Hori bizitzak irakatsi dit.

GAUR

Gaurkoa bezalako egunetan hodei nahi nuke izan.

Zeru urdinean dantzatuko nintzateke, firin-faran mugituz haizeen noraezean.

Goitik behera begiratzuz zainduko nuke mundua, kotoizko begi zorrotzez, eta itzal egingo nieke eguzkiaren argi gozoa merezi ez duten horiei.

Gaurkoa bezalako egunetan hodei nahi nuke izan.

Nire tristurak lasai hustuko nituzke malko zaparradetan, eta mundua bustiko nuke barrenak lasaitu arte. Haserre sentituz gero sartaldetik entzungo ziren nire trumoi-hotsak, eta txingor-kolpeak botako nituzke haserrarazten nindutenen gainera.

Gaurkoa bezalako egunetan hodei nahi nuke izan.

Zeru urdinean jolasean arituko nintzateke kotoizko irudiak asmatuz. Dibertigarri egiten zaizkizun formak osatuko nituzke behin eta berriz zure irribarrea ikusi arte, eta orduan, kotoi bolatxo txikitan desegingo nintzateke zure irribarreak itzalik izan ez zezan.

Gaurkoa bezalako egunetan irribarre nahi nuke izan.

IZENA

Alaba jaioberriaren izena hautatzea ez zen erraza izan.

Erditzearen unera arte egon ziren aukerak aztertzen, gogokoen zein zuten jakin gabe: Oihana, Ainhoa, Nahia... Zein zen alabatxoarentzat izenik egokiena?

Ospitalerako bideko larritasunean hartu zuten azken erabakia. Ez zizkioten buelta gehiago emango: Oihana. Hori izango zen izena.

Hurrengo egunean, izenik egokiena hautatu izanaren pozarekin abiatu zen aita erregistrora, jaiotzeri berri zen izartxoaren izena ematera.

Pozarren sartu zen bulego tristean, eta hango funtzionarioen begirada hilei jaramonik egin gabe irribarrez jarraitu zuen mahai gainean behar ziren paper guztiak utziz.

Minutu batzuk igaro ziren funtzionarioak lehen aldiz hitz egin zion arte.

—Zein izen jarriko diozue haurrari? —galdetu zion ahots monotonoz.

Aitak irribarre zabal batekin erantzun zion, poza ezkutatu ezinik.

—Oihana —esan zion, alabaren izena hitz magikoa izango balitz bezala ahoskatuz.

Funtzionarioa begi goibelez begira gelditu zitzaion.

—H non darama horrek? —galdetu zion aita zoriontsuari lehor.

Aita pentsakor gelditu zen eta pixkanaka irribarrea aurpegitik desagertzen joan zitzaion.

—Olatz —izan zen bere erantzun tristea.

ERREGĒAK

Erregeen kabalgata aitaren besotan ikusi zuen.

Morroiak gerturaten ikusi zituen, zuziak piztuta eta aurpegiak beltzez margotuta. Danbor-hotsek laguntzen zieten, eta haurrak emozioz begiratzen zion desfileari, begiak ase ezinik.

Morroiak atzetik, urrutian, erregeen karrozak sumatzen ziren, argi liluragarritz beteak, musika-hotsak airean, haurarentzat magia betetako uneak.

Aitari keinuak egiten zizkion, morroiak seinatuz, txupetea ahotik atera eta zuzien suei ufa eginez, eta, batez ere, urrunean zetozen erregeen keinuak imitatuz. Besoak mugitzen zituen haurrak, erregeen modura gozokiak airean botako balitu bezala. Emozioz beteta zegoen, erregeak bere parera noiz iritsi zain.

Pixkanaka gerturatu ziren karrozak.

Lehena Meltxor izan zen, eta haurrak muxuak eta agurrak bidali zizkion erregeari aitaren besoetatik.

Bigarren Gaspar pasa zen, eta erregeak botatako gozokiekin beldurtuta negarrez hasi zen.

Hirugarrena Baltasar izan zen, eta honek botatako gozoki-zaparradak burua kolpatu zionean, erregeen opari gehiago ez zuela nahi erabaki zuen haurrak.

BIDAIA

Goizaldean abiatu zen.

Begiak zabaldu zituenean, ohearen ondoan bere anaia zegoela ohartu zen. Urteak ziren anaia azkenengoz ikusi zuenetik, eta hura ondoan izateak bereziki poztu zuen.

—Prest abiatzeko? —galdetu zion honek bere ohiko umore onez.

—Prest —erantzun zion irribarretsu, anaia berriz berekin izatearen pozaz.

Bere ohiko patxadaz abiatu zen, lasaitasunez, goiza atzean utzi eta eguna argitzen zen tokirantz abiatuz.

Itzulerarik gabeko bidaia.

DESARMEA

Bi gizonak aurrez aurre eseri ziren.

Batak traje beltza zeraman soinean. Gorbata txukundu zuen mahaiaren beste aldean eserita zegoen gizonari begira. Honek, kaputxa iluna zuen jantzia, aurpegia erabat estaltzen zion kaputxa.

—Arma guztiak uzten ez dituzun arte ez gara hizketan hasiko —esan zuen trajez jantzitakoak.

Kaputxadunak mahaiaren gainean zeuden armak seinalatu zizkion.

—Hor daude nire arma guztiak —azaldu zion mahaiaren betetzen zuten bonba, metraileta, eta pistolak erakutsiz.

—Hor daudenak ez dira guztiak —erantzun zion besteak.

Kaputxadunak eskuak patriketara eraman eta beti berekin zeraman labana txikia utzi zuen mahai gainean.

—Orain bai? —galdetu zuen.

—Horiek ez dira dituzun arma guztiak —jarraitu zuen gorbatadunak temati.

Kaputxadunak berehala ulertu zuen besteak esan nahi zuena, eta alkandorako patrikan zeramatzan paper eta boligrafoa aterata mahai gainean utzi zituen horiek ere.

—Listo —esan zion besteari.

—Oraindik ez —izan zen erantzuna.

Kaputxaduna begira gelditu zitzaion. Bazekien parean zuen gizonaren ustez zein zen bere armarik arriskutsuena, baina ez zuen horrelakorik espero.

Traje beltzez jantzitako gizonari begira, mahai gainean utzitako labana hartu zuen berriz, eta ahoa zabalduz mingaina atera zuen.

Kolpe bakarrean egin zuen, bitan pentsatu gabe. Amaitzean, labana odoldua eta mingaina armaz betetako mahaiaren gainean utzi zituen.

—Orain bai —esan zion gorbatadunak irribarrez—. Orain has gaitezke hizketan.

BESARKADA

Besarkada batekin esnatu zen.

Besarkada gozoa zen, maitasunez betea, ohearen epeltasunean jaso zuena. Ez zituen begiak zabaldu, besarkadaren ezintasuna gozatu nahian. Ez zuen une hori galdu nahi, eta ahal zuen bitartean eutsi zion ohean, begiak itxita.

Besarkadak igortzen zion maitasuna baino ez zuen gozatu nahi.

Iritsi zen moduan joan zen besarkada, pixkanaka desagertuz, pixkanaka askatuz, eta pixkanaka zabaldu zituen begiak berak ere.

Guztiak berdin jarraitzen zuela ikusi zuen berehala. Ez zen ezer aldatu: ohearen beste aldeak hutsik jarraitzen zuen, azken gauetan bezala.

Ohe ondoan zuen argazkia begiratu zuen, beste behin. Malkoak kolpatu zitzaizkion begietan, azken egunetan hain sarri gertatzen zitzaion bezala, eta ohearen epeletik eskua luzatuz agur esan zion azken aldiz, jasotako azken besarkada hori bihotzez eskertuz.

—Nik ere maite zaitut —esan zion malko artean, zegoen tokian zegoela entzungo zion esperantzan.

ZAKARRONTZIA (DESEROSO I)

Deseroso sentitzen zen.

Ez zuen inoiz atxikimendurik sentitu kalean dirua eskatzen zutenekiko, edo zabor artean janaria bilatzen zutenekiko. Baina oraingoa desberdina zen. Eta horrek, deseroso sentiarazten zuen.

Bere etxeko leihotik berriz begiratu zuen kalearen bestaldean zegoen zakarrontzira: mutil gaztea zen han ikusten zuena, janari bila. Normalean kanpotarrak ziren zakarrontzian janari bila aritzen zirenak, baina hau bertakoa zen. Herrikidea zuen.

Ikaskidea zuen.

Eta horrek, deseroso sentiarazten zuen.

Mutilak, une batez, zakarrontzitik atera zuen gorputza, eta bat-batean, begiradak gurutzatu zituzten. Deseroso, zer egin ongi jakin gabe, leihotik aldendu eta etxe barrurantz sartu zen.

“Ez nau ezagutu”, pentsatu zuen jateko zerbaiten bila hozkailua zabaltzen zuen bitartean.

Baina janariak ez zion barrena betetzen.

Deseroso sentitzen zen.

LEIHOA (DESEROSO II)

Deseroso sentitzen zen.

Ez zuen inoiz atxikimendurik sentitu gizartearekiko, edo egunean zortzi ordu tailer batean egoten zirenekiko. Baina oraingoa desberdina zen. Eta horrek, deseroso sentiarazten zuen.

Janari bila ari zen zakarrontzi barrutik berriz begiratu zuen kalearen bestaldean zegoen etxerantz: mutil gaztea zen han ikusten zuena, leihotik begira. Normalean aurpegi ezezagunak ziren begira izaten zituenak, baina hau bertakoa zen. Herrikidea zuen.

Ikaskidea zuen.

Eta horrek, deseroso sentiarazten zuen.

Mutilak, une batez, leihotik zuzenean begiratu zion, eta bat-batean, begiradak gurutzatu zituzten.

Deseroso, zer egin ongi jakin gabe, buelta eman eta zakarrontzi barrura sartu zen.

“Ez nau ezagutu”, pentsatu zuen jateko zerbaiten bila zabor-poltsak zabaltzen zituen bitartean.

Baina zabor arteko janariak ez zion barrena betetzen.

Deseroso sentitzen zen.

PIRATA

Egurrezko hankarik gabeko pirata zen.

Ordenagailua zen bere pirata-ontzia, eta horren agintetik, Interneten harrapa zitzakeen altxor guztien bila aritzen zen: pelikula, telesail, liburu edo musika, berdin zitzaion. Guztiak balio zion.

Megak eta megak zituen eguneroko harrapakin, saguaren kolpez hondoratu eta behera jaisten zituenak, bere ordenagailuko ziberaltxorra handitzen zutenak. Pasahitz eta kode kriptografikoz babestuta zeukan altxorraren mapa, disko-gogorreko sektore ezkukurako bidea tranpaz betea.

Mende berriko pirata zen, gupidarik gabekoa, kontzientziarik gabekoa.

Ezustean piztu zitzaion kontzientzia.

Harrapaketan zebilela “Euro bat, liburu bat” zioen iragarki batekin topo egitean gertatu zen.

Trikimailu baten aurrean zegoela pentsatu arren, iragarkia klikatu eta elkartasun kanpaina batera iritsi zen: liburu digitalak libre jaitsi zitezkeen gune bat zen, baina euro bat ordainduz gero, dirua hondamendi bateko kaltetuei bideratuko zitzaien.

Edukiak eskura izan arren, begiko partxea eta bandera-beltza alde batera utzita kreditu-txartela erabili zuen. Euro bat ordaintzea bidezkoa iruditu zitzaion, elkartasunaren aitzakian, eta birritan pentsatu gabe, Paypal-en laguntzaz ordaindu zuen.

Ordainketa gauzatu orduko mugikorra joka hasi zitzaion.

—Bai? —erantzun zuen harrituta piratak.

—Egun on —agurtu zuen goxo emakume batek—. Bankutik deitzen dizut. Zure kontuan euro bateko mugimendua ikusi dugu eta segurtasun-arrazoiengatik deitzen dizugu. Ziberpirata baten iruzurra izan ez dela bermatu nahi genuen.

—Lasai —erantzun zion berak asaldatuta—, nik egindako ordainketa izan da.

Telefonoa eseki eta azkar zabaldu zuen berriz bandera-beltza.

Ez zegoen zalantzarik: pirata bezala lasaiago bizi zen.

KONTSOLAMENDUA

Izekori telefonoz deitu diot.

—Eskerrik asko opariagatik, izeko —esan diot telefonoa hartu bezain pronto.

—Ez horregatik, motel —erantzun dit hariaren bestaldetik—. Zer moduz zaudete?

—Denak ondo —azaldu diot zalantzati—. Logaleak jota, baina ondo.

—Zer nahi duk, ba? —bota dit barrez—. Horiek dira gurasotasunaren ajeak! Gure adinean izango duk lo egiteko aukera.

—Badakit —poztu naiz—. Hori da nire kontsolamendu bakarra: jubilatzen naizenean izango dudala lo egiteko nahi adina denbora.

—Jubilatzen haizenean bai —onartu dit—, eta jubilazioaren ondoren are gehiago.

Telefonoa eseki ondoren ohartu naiz haren hitzen esanahiaz.

Akabo nire kontsolamendua.

MENDIZALEA

Mendizalearen ausardia kondairazkoa zen.

Mundu osoan irabazi zuen fama mendian egindako balentrien ondorioz.

Hamalau zortzimilakoak inoren laguntzarik gabe igo zituen, oso gaztea zelarik. Everest oxigenorik gabe hiru aldiz igo zuen beste hainbat bidetatik, K2 ospetsuan bide berriak urratu zituen, eta paretatik zintzilik egoteko bere gogoan Patagonia eta Zeelanda Berriko amildegi ikaragarrienak gaindituak zituen.

Mendizalearen ausardia eromenetik gertu zegoela zioten kontrakoek. Jenioa zela, inoiz egon zen eskalatzailerik trebeena zela, aldekoek. Ez zuen inor epel uzten.

Islandiako sumendietara bideratua zuen hurrengo espedizioa, eta prentsaurrekoa eman zuen hura iragartzeko. Mundu guztiko kazetariak bete zuten prentsa-aretoa, eta hizkuntza ugari entzuten ziren era guztietako galderak eginez:

—Munduko gailur altuenak zapaltzen dituzu —galdetu zion kazetari euskaldun batek—. Baina ez zaitugu inoiz ikusi hemengo mendietan. Zergatik?

—Ez ditut hemengo mendi-bideak gogoko —erantzun zion mendizaleak urduri.

—Nola da posible? —jakin nahi izan zuen kazetariak.

—Baserrietako txakurrek beldurra ematen didate.

IRAKURLEA

Irakurleak idazle nahi zuen izan.

Ehunka, milaka liburu irakurri ondoren, urtetan pilatutako jakintza idatziz jasotzea erabaki zuen, eta irakurtzera bideratu ohi zuen grinaz ekin zion idazteari.

Orrialde zuriak irensteko makina bilakatu zen. Ohartzerako lehen liburua argitaratu zuen, letra ñimiñoz betetako ehunka orrialde. Arrakasta itzela izan zuen liburu hark: “mendeko liburua” izendatu zuten kritikariek, eta, ondorioz, gogo gehiagoz ekin zion idazteari.

Egunak idazten ematen zituen, eta, gauak egunez idatzitakoa zuzentzeko erabiltzen zituen. Ez zuen beste ezertarako astirik hartzen: idatzi, zuzendu, argitaratu, promozionatu, idatzi, zuzendu...

Bitzita amaierarik gabeko liburu bilakatu zitzaion, eta, ohartzerako, bere egunerokotasunean izandako gauza txikien falta sumatu zuen: lagunekin egotea, pasieran ibiltzea, mendira joatea, eta, bereziki, gehien maite zuena egitea: irakurtzea.

Idazleak irakurle nahi zuen izan.

MONOTONIA

Egunerokoa monotono egiten zitzaion.

Goizean jaiki, lanera joan, bazkaldu, lagunekin trago bat hartu, eta ohera. Behin eta berriz errepikatzen zen bizi-ziklo monotonoa.

Ostirala noiz iritsiko bizi zuen astea. Furgoneta hartu, eta ihes egiteko amorratzen.

Asteburuak etxetik urruti ematen zituen: mendian, hondartzan, eskiatzen edo bizikletan, berdin zitzaion non, baina urruti, monotoniatik ihesi.

Asteburua joan, asteburua etorri, furgoneta hartu eta ihes egiten zuen. Ihes egunerokotik, eta ihes monotoniatik.

Hori ere monotono egin zitzaion arte.

ENTZUN

—Entzun! —esaten zion ondotik pasatzen zitzaion edonori—. Entzun haizearen ahotsa, entzun zuhaitzen marmarra, entzun zure inguruan. Entzun!

Inguruko hotsei buruz eztabaidan ematen zuen eguna: txorizalearekin txorien kantuaz, musikariarekin akordeen esanahiaz, edo parkeetan zeuden amekin haien hurren negarraren hizkuntzaz. Nonahi geldituko zen entzuten zuena adi-adi jarraitzera. Berdin zitzaion mendi-puntan egon, ala kale bazterrean. Soinua zen beretzat garrantzia zuen bakarra.

—Zorionekoa zu —esan zion behin itsasgizon bati—, itsasoaren soinuak egunero gozatzen dituzu eta.

—Itsasoan isiltasuna baino ez dago! —harritu zitzaion hura—. Nork du gogoko horrelakorik? Nik nahiago dut kaleko zarata, hemen bizitza dago.

—Ez! Itsasoak mila ahots ditu: olatuen orroa, karioen hizketaldiak, arrainen zipriztinak... entzuten jakin behar dira.

—Egunero entzuten ditut nik —erantzun zion itsasgizonak—, baina nahiago dut kalean entzuten den giroa.

—Entzun! —oihukatu zion besteak zebra-bidearen erdian geldituz—. Trafikoaren zarata baino ez da entzuten hemen.

Gainetik pasa zitzaion kamioiaren orroa izan zen entzun zuen azkena.

LAGUNAK

Milaka lagun zituen.

Munduko punta batean zein bestean zituen lagunak, kolore, arraza eta sexu guztietakoak. Egunero izaten zuen batekin zein bestearekin zer kontatua, eta gustura ematen zituen orduak lagunekin jardunean: azken pasadizoak kontatu, burutazioak partekatu, elkarrekin barre egin...

Lagunekin pasatzen zituen eguneko ordu gehienak, pantailaren aurrean eserita muga guztiak gaindituz: ez zegoen herrialderik, ez zegoen oztoporik, ez komunikazio-arazorik. Bera eta sarearen mila muturretan konektatzen ziren lagunak baino ez zeuden.

Milaka lagun.

Bihotzak kale egin zion egunean ez zen inor agertu bere hiletara.

Ez zuen lagunik inguruan.

EGUZKIA

Eguraldi txarraz nazkatuta zegoen.

Eguna joan, eguna etorri, euria baino ez zuen ikusten etxeko leihotik. Opor-garaian, hurrekin etxetik atera ezinik egoteak erotuko zuen.

Interneten sartu eta eguzki bila hasi zen: Landak ez, eguraldia Euskal Herrikoaren antzekoa baitzen. Kantabrian ere ez zegoen alde handirik, eta Benidormen abuztuan ez zegoen bizitzerik. Eguzkia nahi bazuen beste nonbaitera egin beharko zuen ihes.

Inspirazioak jota, telefonoa hartu eta izekori deitu zion: ez zegoen arazorik, Extremadurako etxea libre zeukan abuztuan.

Autoan sartu zituen haurrak eta emaztea, eta bitan pentsatu gabe jarri zen bidean. Bide erdian pozik piztu zuen autoko aire-girotua, eta iristean gogo biziz hartu zuen Extremadurako eguzki beroa. Han bai, han ez zen eguzkirik falta.

Egun gutxiren buruan ohartu zen hango beroa ez zegoela jasaterik, eta ilundu arte ez zen etxetik irteten.

Eguna joan, eguna etorri, eguzkia baino ez zuen ikusten etxeko leihotik. Opor garaian etxetik atera ezinik egoteak erotuko zuen.

Eguraldi onaz nazkatuta zegoen.

ESTRESA

Estresak jota zegoen oporrak hartu zituenerako.

Lana, bulegoa, nekea, bilerak, telefonoa, arazoak, kezkak, bezeroak, epeak, buruhausteak... Gogo biziz hartu zuen abuztuaren lehena, eta etxera joan zen, familiarekin deskantsatzera.

Estresak jota zegoen oporrak amaitu zituenerako.

Umeekin hondartza, igerilekua, parkea, negarrak, bronkak, kexak, gaixoaldiak, jatorduak, borrokak... Gogo biziz hartu zuen irailaren lehena, eta bulegora joan zen, familiaz deskantsatzera.

BELDURRA

Jaio zen herritik ez zen inoiz irten.

Bidaiatzeak izua eragiten zion, erabateko ikara. Zer gertatuko zen hegazkina eroriz gero? Edo auto-istripua izaten bazuen? Zer egin lurralde arrotz batean gaixotzen bazen, edo dokumentazioa lapurtu eta bakarrik galduta geldituz gero?

Bidaiatzeak ikara eragiten zion. Horregatik, lehen aldiz oporretara joatea erabaki zuenean ongi planifikatu zuen guztia: herrialde arriskutsuak alde batera utzita heriotza eta kriminalitate-tasak aztertuta oporretara Luxenburgora joatea erabaki zuen. Ondoren, istripu-estatistikak begiratu zituen garraio-bide seguruenaren bila, eta trenea hautatu zuen, tren-konpainiarik ezagunenarekin billetea erosiz. Bidaiarako behar zituen botika guztiak erosi eta maleta prestatu zuen, hotz zein berorako arroparekin. Azkenik bidaia-aseguru bat kontratatu zuen, ezustekorik ez izateko.

Maletarekin etxetik irtetean erori zen eskaileretatik behera. Hiru hezur hautsita ez zen ospitaletik mugitu opor guztietan.

GLOBOA

Globoak maite zituen.

Airean flotatzen ikusten zituenean begiak pizten zitzaizkion, haien kolore, forma eta hegaldiaren edertasunak liluratuta.

Globo guztiak zituen gogoko, baina bereziki, herriko jaietan kalez kale salgai egoten ziren heliozko globoak zituen begiko. Beste globoek ez bezala bikain eusten zioten airean, harmoniaz hegan eginez, egunetan lurrera jaitsi gabe.

Amak ez zion inoiz helio-globorik erosi nahi, garestiak zirelako, airean ihes egingo ziolako, edo berehala aspertuko zela iritzita. Baina haurrak globoa nahi zuen, txori baten itxurako globoa ahal zela, ordu luzetan airean eutsiko ziona, lurrera jaitsi gabe.

Amaren zain egoteaz nazkaturik, ogi-barra bat eta ganbaran gordetako sare zaharrak hartuta herriko plazara joan zen. Azkar harrapatu zuen sarearekin gosetutako uso bat, eta ihes egin baino lehen lokarri luzea lotu zion hankan.

Pozik paseatu zen usoa lokarriaren beste muturrean zuela. Airerik galtzen ez zuen globoa asmatu zuen, lurrera inoiz jaisten ez zena, lurrean arrastaka eramatea nahi ez bazuen, behintzat.

BARATZEA

Ez zuen inoiz aitaren baratzea zaindu.

Baratze polita zen hura, etxe koentzat behar adina barazki ematen zituena.

Aita beti saiatu zen semea baratzeko lanetan inplikatzeko, barazkien jatorria irakasten, baina semeak ez zuen gaiarekin ezer jakin nahi izan.

—Nik ez dut barazkirik jaten —esaten zion semeak—. Jan nahi dituenak zaindu ditzala!

Opor-garaian bereziki eskatzen zion aitak baratzea zaintzeko, bera kanpoan zegoen bitartean ureztatzeko, gutxienez. Hori ere haserrerako arrazoi bihurtzen zitzaion, urteen poderioz aitak baratzea alde batera utzi zuen arte.

Aita hil zen urtean loreontzi handi batzuk eta nekazaritza liburuak erosi zituen semeak.

Etxeko balkoian landatu zuen baratzea.

MUXUA

Lo zegoen haurrari muxu eman nahi zion aitak.

Gelara sartu eta mantak ongi jarri zizkion, gauean hoztu ez zedin. Maitekiro begira gelditu zitzaion, baina ez zen muxu ematera ausartzen.

Zer gertatuko zen muxuak esnatzen bazuen?

Ohe ondoko argi txikia itzali, eta azken begiratu triste batekin gelatik atera zen, lo zegoen haurrari muxu eman ez izanaren damuak penatuta.

Une berean zabaldu zituen begiak semeak.

Beste behin ere aitaren mugimenduen zelatan egona zen, begiak itxita, hainbeste irrikatzen zuen muxua noiz iritsiko zain. Baina gau hartan ere muxua ez zen iritsi, eta ondorioz loa ere ez zen erraz iritsiko.

Aitak ez ziolako eman hain gogoko zuen gabon-muxua.

PAZIENTZIA

Ez zuen inoiz pazientziarik izan.

Ez zuen pazientziarik zain egoteko, ezta gauzak egiteko ere. Ez zekien denboraz gozaten, edo besterik gabe paisaia eder bati begira egoten. Ezinegonak irensten zuen, eta gauza bat amaitu orduko jartzen zen martxan hurrengo zereginaren bila.

Ezin zen trenaren zain egon behar baino minutu bat gehiago. Berandatzten zen edonori errieta egingo zion, eta hitz-aspertuez elkarrizketa bat luzatzen ziotenean, berehala moztu edo alde egingo zuen, pazientzia galdua.

Nonbaitera joan behar bazuen ere alde zurretik urduritzen zen, garaiz ez iristeko beldurrez. Jarraian, denboraz sobera iristen zenez pazientzia galtzen zuen itxarotea egokitzen zitzaiolako.

Ez zuen inoiz pazientziarik izan.

Medikuak minbizia zuela esan zionean bere buruaz beste egitea erabaki zuen.

Ez zuen pazientziarik heriotzaren zain egoteko.

BISITA

Urtean behin etortzen zait familia bisitan.

Urtean behin etortzen dira guztiak: batzuk bakarka, taldeka besteak, baina pixkanaka familia guztia inguratzen da nirera.

Beti gustatu izan zaizkit bisitak, eta haiek goxo hartzeko ahalegina egiten dut ingurua atonduz: kanpoko hostoak garbitu eta zikina kentzen saiatzen naiz. Ihartutako lore zaharrak botatzen ditut, ekarriko dizkidaten lore berriei tokia utzi nahian.

Urtean behin elkartzen da familia nirean, eta inoiz ez diote elkarri galdetzen nor arduratu den guztia txukuntzeaz.

Azken finean, nor kezkatzen da hilobi bat garbitzearekin?

GAZTE-TXARTELA

Ez zuen gazte-txartela inoiz erabili.

Ez zuen inoiz zinemarako sarrera merkerik erosi txartelaren laguntzaz, edo deskonturik eskatu kiroldegian. Bera joan ohi zen kontzertuetan ez zuten gazte-txartelik onartzen, eta ez zitzaion inoiz burutik pasa Europa trenez zeharkatzea, txartelaren prezio-abantaila baliatuz.

Diru-zorroan beste agiriekin batera zeraman arren, ez zuen inoiz gazte-txartelaren beharrik sentitu, iraungi zitzaion arte.

Ofizialki zahartu zela sentitu zuen.

USAINAK

Usainak ditut maite.

Usain-mota guztiak: gozoak, melengak, leunak eta eztiak. Gardenak zein nazkagarriak. Guztiak ditut maite.

Nonbaitera iritsi orduko, sudurreko leihatilak ongi zabaldu eta bertako usain guztiak arnasteko ahalegina egiten dut. Batzuk ezagun egiten zaizkit, eta oroitzapenak sortarazten dizkirate berehala. Besteak, berriak dira niretzat, eta azkar barneratzen ditut, badakidalako usain horiei esker etorkizunean berriz biziko dudala une hori.

Usainak ditut maite, haiek osatzen dutelako nire memoria. Iraganera eramaten naute, lurrinez osatutako etengabeko bidaietan, eta haiei esker behin eta berriz ekartzen ditut gogora bizitako esperientzia guztiak.

Usainak zenbat maite ditudan jakinik, perfumerik garestiena oparitu zidan lagun batek behin. Haserre, oparia itzuli nion: ez ditut perfumeak gogoko.

Usainak estaltzen dituzte.

HEGO-HAIZEA

Hego-haizea iristearekin batera utzi zituzten armak.

Albistegi guztiak zabaldu zituzten, egunkarietako azalak bete. Hainbeste urteren ondoren amaitu ziren tiroak, bakea iritsi zen, hego-haizea bezalaxe.

Albiste zaparradak zorabiatuta mendira joan nintzen, hego-haizearen laguntzaz beste bake baten bila. Baina, mendiko bakea tiro hotsek hautsi zuten.

Hego-haizeak ez ditu arma guztiak uxatzen.

POETA

Benetako poesia idazten zuen.

Bere liburuak ez ziren autobusean irakurtzeko modukoak. Bere bertsoek ezin zuten edozeinen gogoa ase, sentimendu berezia transmititzen zutelako. Hitzak ez ziren arruntak, esanahiak ez ziren sinpleak, eta egiturek moldeak hausten zituzten.

Poesia sakona lantzen zuen.

Kritikariek ez zuten maite, aurreratuegia zelako haientzat. Irakurleek ez zuten maite, ez zirelako bere arteaz jabetzen, eta argitaletxeek ez zuten maite, ez zuelako libururik saltzen.

Bere poesia horien guztien gaineratik zegoen.

Erakustaldi modura poema arrunt bat idatzi zuen, berak hainbeste gorroto zuen ohiko maitasun lerdokeria, bihotz gorri, odol bero eta malenkoniaz betea. Maiteminez zegoen lagun bati bidali zion poema sare sozialen bitartez, txantxa modura. Ohartzerako sareko fenomeno bilakatu zen: milaka lagunek irakurri zuten bere poema, poeta aurrerakoitzat jo zuten adituek, eta argitaletxetatik deika hasi zitzaizkion.

Poesia idazteari utzi zion. Bere artea ez zen edonorentzat.

LANBIDEA

Langabezia zen bere lanbidea.

Krisian zeuden enpresak bisitatu, neurriratu eta ixtea zen bere espezialitatea. Soldata jaitsierak, langileen kaleratzeak eta ondareen salerosketak ziren bere egunerokoa, eta horrekin bizitzera ohitua zegoen. Ez zegoen oihurik gabeko egunik, negarrik gabeko bilerarik edo pankarta beltzik gabeko ingururik.

Sufrimendua zen bere lanbidea.

Bizimodu horretaz nazkatuta, hain ongi ezagutzen zuen langabeziaren bidea hartu zuen, ogibidez aldatzeko gogoz. Lanbideko bulegora inguratu eta bizitza berri baten esperantza zutenen zerrendan inskribatu zuen bere burua.

Funtzionarioak aurkeztutako formularioa zintzotasunez betetzea erabakita, esperientziaren orrian honakoak jarri zituen: negarra, sufrimendua, albiste txarrak, etorkizun faltak, amaierak.

Berehala aurkitu zioten lana ehortzetxe batean.

Heriotza zen bere lanbidea.

MAITE ZAITUT

—Maite zaitut —esaten zion, garrasika irainduz umiliatzen zuen bakoitzean.

—Maite zaitut —hitzematen zion mahaian eserita, bazkaria hotz zegoen aitzakiaz platerak lurrera botatzen zituen bakoitzean.

—Maite zaitut —xuxurlatzen zion damututa, emandako jipoiaren ondorioz odoletan uzten zuen bakoitzean.

—Maite zaitut —erregutzen zion barkamena etxera mozkortuta iritsi eta bortxatzen zuen bakoitzean.

—Nik ere maite zaitut —erantzun zion emazteak, senarrari sabelean sukaldeko aiztoa sartzeagatik atxilotuta eraman zutenean.

AMAIERA

Boligrafoa neke-itxurarekin gerturatu zait.

—Ezin dut gehiago! —ziurtatu dit berehala—. Agortuta nago!

—Ni ere bai —onartu diot.

—Bi urte daramatzat zure ipuinak idazten —gaineratu du—, eta laburrak izan arren jada ez zait tintarik gelditzen.

Kexua espero nuen, ezer ez baita betirako. Nik ere ideiak agortu ditudalakoan nago, baina hala ere, azken ahalegina eskatu diot:

—Lagundu ipuinak zenbatzen.

Halaxe egin dugu. Banan-bana zenbatu ditugu ipuin guztiak 99ra iritsi arte.

—Ehun ipuin idazteko erronka jarri nion neure buruari —esan diot orduan boligrafoari—. Gai ikusten al zara azken ahalegina egiteko?

—Zuri zer iruditzen? —erantzun dit harro, nire eskura salto eginez.

Pentsakor gelditu naiz une batez, azken ipuina izango denaren gaia erabakitzeko. Berehala ohartu naiz, ordea, ez dela oso erabaki zaila, eta boligrafoaren tinta-hondarrak astinduz azken ipuinaren titulua idatzi dut:

AMAIERA